NOLA EGIN BERRIA KOMUNIKAGARRI

Nicolás Xamardo González

Kazetaritza Saileko irakasle ohorezkoa - EHU

∞∞∞

(c) Nicolás Xamardo González
(***Coimo un acontecimento (lo novo) se fai comunicable ,*** Novas do Eixo Atlántico, 2024)
(cc) Nola egin berria komunikagarri, *2026)*
***Itzulpena**: Jexusmari Zalakain*
***Trinkotze lanak**: Laura Mintegi*

Edukien taula

SARRERA.....3
GAIZKI IKUSIA ETA GAIZKI ESANA.....4
PROZESU SUBJEKTIBOAK.....10
ZENBAIT ADIBIDE.....13
Vasili Kandinsky.....14
Nelson Mandela.....20
Warren eta Marshall.....27
Richard Loving eta Mildred Jeter.....40
LABURPENA.....44
ERREFERENTZIAK.....46
6.1. Erreferentzia bibliografikoak.....46
6.2. Erreferentzia hemerografikoak.....47

Sarrera

Komunikazioa –jakintzak, informazioak, ezagutzak, sinisteak, iritziak, etab. nola transmititzen diren prozesua– oso gauza aztertua da, oso ezaguna. Gauza bera gertatzen da inkomunikazioarekin; hots, bere zergatiak eta bere efektuak.

Adierazi behar dugu ezen biak (komunikazioa-inkomunikazioa) logika berean daudela.

Prozesu hauei dagokienez, egin behar dugun lehen galdera hurrengo hau da: ¿nondik datoz komunikazio-objektu diren materialak?, ¿betidanik existitzen al dira? Kontrara, ¿nola joan dira sortzen? ¿Ezerezetik sortu al dira? ¿Denboran zehar sortuak izan al dira? Baiezkoan, zeinek edo zeintzuek eta nola sortuak?

Guk uste dugu prozesu komunikatiboen edukiak, denboran zehar, politika-, arte-, zientzia- eta maitasun-eremuetan sortzen joan diren giza asmaketetatik datozela. Sinisteen mundua bera –gure ikergaiaren parte ez dena– ustezko gertakizunetatik dator, izen propioei asoziatuak eurak ere: Abrahami, Jesukristori edo Mahomari, hain zuzen ere.

Horregatik, lan honetan, egitate singular batzuk aztertuko ditugu, zeinek, komunikatu baino areago, komunikazioa eteten baitute (hasierako inkomunikazio erradikala eragiten dute), logika komunikatibotik at daudelako. Sorkuntza batean, asmakizun batean, egia batean, errotiko berritasun batean, gertakizun batean abiapuntua duten prozesuak aipatzen ari gara; hau da, egitate singular batean, zeinak, bere hasieran, jakintza komunikagarriak eteten dituen, baina, lan honetan azalduko dugun prozesu konplexu baten bitartez, jakintza berri, komunikagarri, bilakatzen joan eta entziklopedia aberastuko duena. Eta, horrela, hedapen-objektu izango da, aipatutako prozesu komunikatiboen bitartez. Gertakizun oro, erlijioari buruz esan dugun bezala, izen propio bati asoziatuta dago.

Gaizki ikusia eta gaizki esana

Lehen hurbilketa batean, Gertakizunera gerturatuko gara Imajinario, Sinboliko eta Errealaren bitartez (berria, Gertakizuna).

Samuel Becket irlandar dramaturgo ospetsuak dioenez: “berria beti dago gaizki ikusia eta gaizki esana”. Hots, berria (Erreala) beti esango da irudi berriekin, hitz berriekin. Einsteinek esaten zuen bezala, asmakizun (Gertakizun) oro metaforikoki hizkuntza berri batean, forma poetikoan, adierazten da.

Intimoki erlazionaturik, gaizki ikusia Imajinarioaren erregistroari dagokio (figura, irudia) eta gaizki esana Sinbolikoarenari (hitza).

Adierazpide honek, “gaizki ikusiak-gaizki esanak”, zentzu bikoitza dauka, kontzeptuzkoa eta morala. Asmakizun oro, jakintzaren edozein arlotan, berria da, berritzailea; sortzailea da, kreatzailea. Horregatik, lehen une batean, beti egongo da gaizki ikusia: lehen irudiek, non berria adierazten den, gure Imajinarioa osatzen duten errepresentazio-multzoa apurtzen dute, ongi ikusia dena, alegia. Eta horrexegatik beragatik gaizki ikusia egongo da, sozialki eta moralki, berriaren aldekoa izatea; hortik hasierako errefus ekidinezina.

Era berean, asmakizun oro beti gaizki esana egongo da, izan ere, berria esaten duten kontzeptuek hitz arruntekin apurtzen dute, ohiz erabiltzen diren terminoekin; jakintza entziklopedikoaren hitzekin.

Horregatik, gaizki esanak konnotazio moral negatiboa dauka; gaizki esana beti izango da madarikatua.

Eta hori da, eta beti izango da horrela, hain zuzen, berria, lehen unean, zaharretik ikusten eta interpretatzen saiatzen garelako; konturatu gabe, berria ulertzeak ahalegin bat eskatzen digula, eraldaketa subjektibo bat. Hau da, berria ulertzeak jauzi

kualitatiboa eskatzen digu, erabaki bat, zaharrarekin apurtze bat, beti mingarria.

Beste era batera esanda, berriak beti hausten du ezarritako kontsentsuarekin; hots, disentsua sartzen du iritzi eta jakintza ezagunetan. Egia da, ezen, gizateriaren historiako une batean, disentsu handiena eragiten duena gero kontsentsurik handiena bilduko duena dela.

Ikus ditzagun zerrenda ia infinituko hainbat adibide:

Zientzia.

XVII. mendean Galileok heliozentrismoa aurkitu zuen (lurra eguzkiaren inguruan biraka dabil: gaizki esana, gaizki ikusia), zeinaren aurka geozentrismoaren aldekoak zeuden, eliza katolikoa buru zutela. Inkisizioak akabatzeko zorian egon zen.

Darwinek, XIX. mendean, eboluzionismoa formulatu zuen (gaizki esana, gaizki ikusia), zeinaren kontra, Biblian, Hasiera liburuan, kontatzen den kreazionismoaren (ongi ikusia, ongi esana) aldekoak basaki altxatu ziren (ongi ikusia, ongi esana).

Cantor. Grezia klasikotik XIX. mendera arte uste izan zen, infinitua-Jainkoa pentsaezina zela (ongi ikusia, ongi esana); Cantor-ek Zenbaki Transfinituak postulatu zituen arte (gaizki ikusia, gaizki esana). Haren ekarpenak erabateko errefusa ekarri zuen. Bere maisuak berak, Kronecker-ek, “gazteriaren usteltzaile” izatea egotzi zion. Gaur egun, Multzoen Teoria mundu osoko hezkuntza-zentro guztietan ikasten da, lehen-hezkuntzatik hasita.

Albert Einstein, XX. mendeko zientifikorik garrantzitsuena, Erlatibitatearen aita da (gaizki ikusia, gaizki esana). Komunitate zientifikoak, Fisika Klasikotik (ongi ikusia, ongi esana), bere teoriak kuestionatu zituenean, erantzun zuen: “Ni oker banengo, nahikoa zatekeen bakar batek demostratzea!”. Gaur esan ahal dugu egungo aurrerakuntza teknologiko gehienek Einsteinen teorian daukatela oinarria. Hain da zabala haren aurkikuntzen irismena, printzipioetako batzuk oraindik demostratu gabe daudela”. Haren teoriak ‘ongi ikusiak eta ongi esanak’ izatera

pasatu zirenean, Charles Chaplinek esan zuen behin: «Txalo egiten didate mundu guztiak ulertzen nauelako, baina harena askoz errespetagarriagoa da; mundu guztiak miresten du eta praktikan ia inork ez du ulertzen”.

XX. mendearen bukaeran, Marshall mediku australiarrak deskubritu zuen ultzera gastriko gehienen eragilea *Helicobacter pylori* dela (gaizki esana, gaizki ikusia). Halakoxea izan zen haren aurkikuntzak sortu zuen errefusa komunitate medikoan (pentsatzen baitzen azidotasun gastrikoak sortzen zuela ultzera gastrikoa: ongi esana, ongi ikusia), *Helicobacter pylori* hura bere gorputzean inokulatu, ultzera bat eragin eta gero antibiotikoekin sendatu behar izan baitzuen. 2005ean, Medikuntza eta Fisiologiako Nobel Saria eman zioten.

Artea

Artea: alor honetan literatura, pintura-eskultura eta musika sartzen dugu.

Literatura: S. Mallarmé (“madarikatutzat” jotako poeta), J. Joyce, moralik gabea izateagatik debekatua eta hogei aldiz baztertua izan zen. *Ulises* obra “lizuna eta ergela” izatetik XX. mendeko nobelarik onena izatera pasatu zen. F. Pessoak formulatu zuen errefusa: “Beti errefusatu dut ni ulertua izatea. Ulertua izatea prostituitzea da”. Etab., etab.

Pintura-Eskultura:

XIX. mendean, Marcelino Sanz de Sautuola-k Altamirako Leizeko labar-margoak aurkitu zituen (gaizki ikusia, gaizki esana). 34 urte baino gehiagotan margo faltsifikatuak zirela esan zen (ongi esana, ongi ikusia). Eliza katolikoak uste zuen historiaurreko gizakiak (18.000 urte Kristo aurretik) ez zeukala arterako gaitasunik. 1985ez geroztik, Altamirako Lezea Unescoren Mundu-Ondarea da.

Errealismoa (Courbet), Hiperrealismoa (Denis Peterson), Inpresionismoa (Manet, Monet, Degas, Cézanne, etab.), sistematikoki errefusatuak izan ziren, beren margoak

eskandalagarritzat joak. V. van Gogh postinpresionistak koadro bakarra saldu zuen bere bizitzan. Haren obrak “Arrotzak, Intentsoak eta Sukartsuak” kontsideratu ziren. Kubismoa: (P. Picasso ez onetsiak era guztietako deskalifikazioak jaso zituen. Bere obrak “eskizofreniko eta satanikotzat” joak izan ziren. Arte abstraktua: XX. mendean, V. Kandinsky-k formulatu eta gauzatu zituen arte abstraktuaren printzipioak (gaizki esana, gaizki ikusia), eta pintura figuratiboaren aldekoen (ongi esana ongi ikusia) erabateko errefusa jasan behar izan zuen. Bere aurkakoak haren koadroak hautsi eta listuz zikintzera iritsi ziren.

Errefus berbera jasan zuen K. Malevich-ek eta beste askok. Pop artea: A. Warhol-en obrak “iruzur estetikotzat” joak izan ziren.

Musika:

Beethoven: Weber-ek iritzi hau zeukan Zazpigarren Sinfoniari buruz: “Harekin, genio honen nabarmenkeriak *non plus ultra*-raino iritsi dira, Beethoven helduta dago eroetxerako”.

Era berean, Vivaldi, R. Wagner, Mozart, Sibelius, L. Berio eta I. Xenakis, beste askoren artean, errefusatuak izan ziren bere garaian.

Arnold Schönberg-ek, XX. menden, musika atonala sortu zuen (gaizki ikusia, gaizki esana), eta musika tonalaren (ongi ikusia, ondo esana) aldekoen konpositore gorrotatuena izatera iritsi zen.

Estreinaldian errefusatuak edo ulertu gabeak izan ziren opera handiak: Wagner-en Tannhäuser; Rossini-ren El barbero de Sevilla; Purcell-en Dido eta Eneas; Músorgski-ren Godunov; Debussy-ren Peleas eta Melisande eta Adams-en Klinghoffer-en Heriotza

Gauza bera gertatu da jazz, pop, rock, blues, eta beste musika-moldeekin. The Beatles-ek, Lady Gaga-k eta abarrek, lehen unean jaso zuten errefus sozialari aurre egin eta gainditu behar izan zuten. Paradigmatikoa da Jazzaren historia: nola estilo

zokoratu batek, sozialki eta politikoki errefusatuak, kultura globala konkistatu zuen, bere onarpena erdiesteko hamarkadetan borroka egin eta gero.

Politika.

Rousseau, Marx, Lenin, Mao, Robespierre. N. Mandela-k *apartheid*-en kontra borrokatu zuen Hegoafrikan (gaizki ikusia, gaizki esana) eta bizitzaren erdia kartzelan pasatzera kondenatu zuten *apartheid*-en aldekoek (ongi ikusia, ongi esana). Ernesto *Che* Guevara-k eta abarrek, errefusa jasan zuten bere garaian, eta batzuek oraindik errefus bera sufritzen dute.

Maitasuna.

Ezin ditugu aipatu gabe utzi nobelan, antzerkian, musikan, zineman eta errealitatean aipatutako maitasun-historia zenbatezinak. Mundu guztiari interesatzen zaizkion historiak, maitasunaren zentralitateari esker (sentimendu unibertsala), giza harremanetan, literaturan eta errealitatean**.**

Literaturan.

Píramo eta Tisbe, Ovidio-rena. Bi gazte babiloniar, gurasoen kontra (gaizki ikusia, gaizki esana) zoroki maiteminduak. Gurasoen onarpena behar zuten ezkondu ahal izateko (ongi ikusia, ongi esana) Haren maitasuna tragedian bukatu zen. Romeo eta Julieta, W. Shakespeare-ena: bi gazte italiar, Veronakoak, beren gurasoen kontra maitemintzen dira, bien gurasoak etsai amorratuak zirela, eta ezkontzea erabakitzen dute. Gizarte hartan, gurasoek erabakitzen zuten norekin ezkondu seme-alabak. Hori zen araua. Tristan eta Isolda, Wagner-ena, elezahar zelta batean oinarritua. Isolda Marke erregearekin ezkontzera zihoan, baina Tristan eta Isolda maitemindu egiten dira eta haien maitasunak ere modu tragikoan amaitzen du.

Errealitatean.

1930ean Ingalaterrako Eduardo VIII.a Wallis Simpson-ekin maitemintzen da, aktoresa estatubatuar dibortziatu batekin alegia

(gaizki ikusia, gaizki esana). Eliza anglikanoa eta Erresumako Koroa ezkontza haren kontra jarri ziren erabat, emakume hura ez baitzen errege-kastakoa (ongi ikusia, ongi esana). Azkenik, Eduardo VIII.ak anaia Albertoren alde abdikatu eta Wallis-ekin ezkontzen da. Albertok atzerrira bidali zituen eta Parisen eman zuten beren bizitza osoa.

Gaur egun ezkontza monarkikoak onartzen ditu erregetzatik ez datozen pertsonekin ezkontzea.

Aldiz, plebeio batekin (Sonja Haraldsen) ezkondu zen lehen erregea Harald izan zen, Norvegiako erregea 1991z geroztik. Bere aitak, Olaf erregeak harremana debekatzen zuenez, Haraldek esan zion uko egiten ziola erregetzari Sonjarekin ezkontzerik ez bazeukan. Azkenik, hamarkada bat borrokatu ondoren, Olaf-ek eta Norvegiako Parlamentuak onartu egin zuten ezkontza 1968an.

1953an, Norvegiako Ragnhild printzesa, Harald anaia jaio baino lehen tronuaren oinordekoa, bere bizkartzain Erling Sven Lorentzen-ekin ezkondu zen. Haren ezkontzak gizarte norvegiarraren errefus osoa jaso zuen, Norvegiako Errege Familiako lehena izan baitzen erregetzakoa ez zen norbaitekin ezkontzen, eta horrek ekarri zuen haren urtebetetze-eguna egutegi nazionaletik erretiratzea.

Norvegiako Marta Luisak uko egin zien tronuaren eskubideei Ari Behn idazlearekin ezkondu ahal izateko, 2002an.

Azkenik, Seretse Khama eta Ruth Williams, Richard Loving eta Mildred Jeter (AEBetan eta Afrikan arrazismoaren oztopoak gainditu behar izan zituzten bi maitasun-historia erreal). Arraza, kultura edo erlijio ezberdineko pertsonen arteko maitasunak indarrean dagoen legea haustera bultzatzen ditu, izan ere lege horrek maitasunarekin aurrera egitea debekatzen baitie bikote maiteminduei. Gaur egun milioika bikote anonimoei gertatzen zaiena da.

Gizateriak horrela hartzen baitu beti berria, eta horrela hartuko du.

Prozesu subjektiboak

Azter ditzagun prozesu subjektibo batzuk, zeinen arabera gaizki ikusia-gaizki esana, ongi ikusia-ongi esana bilakatzen den.

Historikoki, badakigu edozein asmakizunek, edozein sortzelanek (edozein Gertakizunek, esanago genuke guk) zientzia-, arte-, politika- eta maitasun-alorrean, hasiera batean, beti populazio ia osoaren errefusa jasaten duela. Eta, aldiz, badakigu baita ere, denboraren joanean, berritasun horiek jakintza bihurtzen direla, komunikagarri egin eta ezagutzaren entziklopediaren parte bihurtzen direla.

¿Zein aldaketa, norbanakoarenak edo kolektiboak, gertatu behar dira errefusetik Gertakizun izendatzen ditugun asmakizunen onarpenera pasatzeko (gaizki ikusia-gaizki esanetik ongi ikusia-ongi esanera)?

Asko aztertu izan dira, oso ezagunak dira, prozesu komunikatiboak; hots, gertakizunak, behin ezarritako jakintza bihurtzen direnean.

Modu eskematikoan, hauexek dira osagarriak: Igorlea-Hartzailea-Kodea-Mezua-Kanala-Testuingurua-Efektuak.

Hala eta guztiz ere, prozesu subjektiboak ulertzeko, zeinen bidez Gertakizunak sortu eta jakintza bihurtzen diren, psikoanalisira jo behar dugu, hala sortze-prozesua nola berriaren transmisioa ulertzeko. Kontuan har dezagun ezen, printzipioz, edozein sorkuntzak haren berritasun-graduaren araberako errefus soziala jasango duela. Aldiz, ondoren, onartzen joango da pertsona bakoitzeko prozesu subjektibo konplexu eta ezberdin baten bitartez. Behin onartuta, Gertakizuna, hasieran inkomunikatzen duena, jakintza komunikagarri bihurtzen da.

Hara hemen kontzeptuak: **Erabakia-Legea/Supernia-Angustia-Kuraia-Justizia,** izaera honetako prozesu guztietan presente daudenak. **Erabakiaz** mintzo gara, adierazteko,

Gertakizunaren subjektuarengan sortzen den eraldaketa subjektiboa berria formulatzeko. **Superniaz** mintzo gara Gertakizun baten sorrerak aldatutako **Legea** adierazteko. Gogortasun gehiagorekin ala gutxiagoarekin Araua hausten duen pertsona zigortzeko prest dagoen **Legea**. **Angustiaz** mintzo gara araua hauste-ondorengo prozesu subjektiboa adierazteko. **Kuraiaz** edo **Adoreaz** mintzo gara Angustiatik irteteko subjektuak bultzatzen duen indar subjektiboa adierazteko. **Justiziaz** mintzo gara Egia bat, Gertakizun bat onartua izateko unea adierazteko. Nozio hauek esku hartzen dute nola Gertakizunaren sortzailearen prozesu subjektiboan hala Gertakizunaren subjektuak interpelatutako pertsonen ondoko prozesu subjektiboetan. Hauxe da modua, zeinaren bitartez, berria komunikagarri bihurtzen den, jakintza bihurtzen den.

Ikus ditzagun baita ere gertakizunaren subjektuak, berriaren sortze- eta transmisio-prozesuetan, darabiltzan kontzeptuak: **Erabakia-Interbentzioa-Interpelazioa-Apustua-Inkesta kualitatiboa.** Gertakizunaren subjektuak, berriaren alde Apustu egiteko, Erabakia hartzen du aldez aurretik (ez dauka erdiesteko bermerik). Araua/Supernia hautsi eta ondorengo Angustiaren prozesua gainditu eta eraldatuz, Kuraia bihurtzen du, Justizia-Egia egin dadin. Eta, bere asmakizuna transmititu dadin, esku hartu behar du, sozialki aritu. Interbentzioan edo esku-hartzean, subjektuaren Erabakia ikusten dugu zeina, pertsonala, intimoa izanik, soilik pertsona sortzailearen gizarte-ariketan nabaritu eta egiaztatzen den. Interbentzioa egitean, aktuatzean, pertsona sortzaileak interpelatu egiten gaitu. Dei egiten dio gure subjektibitateari arau berriarekin hautsi eta berria onartzera ausartu gaitezen. Eta nola egiaztatzen ditu bere interbentzioaren efektuak subjektu interpelatzaileak? Pertsona interpelatuaren erreakzioen azterketaren bitartez, Inkesta Kualitatiboa dela medio. Honetan, kuantitatiboan ez bezala (jakintza komunikatua ulertu eta konpartitzen duten pertsona-kopurua), pertsona inkestatzaile kualitatiboak modu positiboan balioesten du bere interbentzioaren errefusa, izan ere, alde batetik, interpelatua izan den pertsonak berriarekiko errefusa erakutsi du, zeinak adierazten baitu haren berritasun-gradua (gero eta errefus handiagoa, orduan eta

berritasun handiagoa), eta ez indiferentzia ala onarpena. Errefusak erakusten dio pertsona interpelatzaileari pertsona interpelatua “ukitua” izan dela. Araua alteratua izan dela eta interbentzioa, interpelazioa egiten jarraitu behar duela.

Gertakizun baten pertsona sortzailearen prozesu subjektiboa –Gertakizunaren subjektuarena, alegia– Interbentzioak interpelaturiko pertsonarena bezalakoxea da. Interbentziogile orok prozesu subjektibo berdintsuetara daramatzaten interbentziogile berriak sortzen ditu. Egia da gertakizunaren subjektua dela bere Erabakiaren-Interbentzioaren ondorengo prozesu subjektibo infinituak abiarazten dituena.

Era berean, diogu, ezen Gertakizun oro inkomunikagarria dela, inkomunikatu egiten duela, eta jakintza oro komunikagarria dela, komunikatu egiten duela. Gizartea, eta hango herritarrak jakintzaren alor guztiak (politika, artea, zientzia, maitasuna) erregulatzen dituzten arauek gobernatuta daude, eta arau horiek **Lege** deituko ditugu. Jakintza horiek guztiak, komunikagarriak, arau, lege, printzipio bihurtzen dira, ezagutu eta errespetatu behar ditugunak. Horregatik, Gertakizun bat sortzen denean, tupust egiten du indarrean dauden arau edo arauekin; hortik dator bere errefusa, bere hasierako inkomunikazioa. Gizakiok badakigu Arau bat hausteak, Lege-hausteak zigor pertsonal-soziala dakarrela, handiagoa ala txikiagoa Gertakizunak inkomunikatzen duen izaeraren (berritasun-graduaren), alorraren eta une historikoaren eta gertatzen den gizarte-motaren funtzioaren arabera. Termino komunikatiboetan, hauste orok kontsentsua hautsi eta disentsua sortzen du.

Ikus dezagun nola hasten den prozesua. Pertsona orok, indibidualki zein modu kolektiboan, zerbait berria sortu, asmatu, aurkitu, enuntziatu, formulatzeko, aipatu diren edozein eremutan, Erabaki bat hartu behar du (ezin du aukeratu, hautatu, dagoenaren artean, jakintza, ezagutza, komunikagarri bezala existitzen denaren artean, hau sozialki dagokion arauaren oinarri izaki). Eta erabakitzeak, dakarren ziurgabetasun-graduagatik, beti Apustu bat eskatzen du. Apustu horrek, indarrean dagoen jakintza arauemailearekin hausten duen neurrian, arriskua dakar, errefus

soziala, pertsona sortzaileak bereganatu behar duena. Arriskuak, Arauaren haustetik datorrenak, errefus soziala dakar hasieran, zeinak, ezinbestean, angustia eragiten baitu apustua egin duen pertsonarengan. Angustia aho biko sentimendua da: alde batetik, desoreka emozionala eragiten du, errefus sozialarekiko beldurraren fruitu, zeinak amore ematera bultzatzen duen, araura itzultzera eta, bestetik, aldi berean, eta modu kontraesankorrean, apustua egiten jarraitu behar duen sentimendua sortzen du, burua jokatu behar duela, esan ohi denez, berriak argia ikus dezan. S. Beckett-ek zioenez: “Jarraitu egin behar da, ezin dut jarraitu, jarraitu beharra daukat”. Gertakizunaren subjektuak, Justiziak gidatuta, berria sozializatzea bilatzen du, komunikagarri bilaka dadin, entziklopedia aberastuko duen jakintza berria izan dadin, gizateriaren zerbitzura egon eta klasiko iraunkor bihurtu dadin.

Sorkuntza oro tokikotik unibertsalizatu egiten da. Ez dago unibertsalitate deslokalizaturik, lekuz kanpokorik. Ikus dezagun azterketa honek jasotzen duen kasuistika zabala.

Zenbait adibide

Arestian esandakoa argitzeko, ikus ditzagun adibide batzuk, artetik, politikatik, zientziatik eta maitasunetik hartuak.

Gertakizunaren subjektu guztiak prozesu subjektibo berberetatik igaro diren arren, denak ez dira berdin kontziente izan, eta ez dute haiei buruzko testigantzarik utzi, edo, gutxienez gu ez gara haietara iritsi.

Aztertuko ditugun autoreak honako hauek dira: V. Kandinsky, artearen alorrean, N. Mandela politikari dagokionez, Warren eta Marshall, *Helicobacter pylori*-ren aurkitzaileak, zientziari dagokionez, eta Richard Loving eta Mildred Jeter, AEBak aldatu zituen maitasun-historia indartsua, maitasunaren alorrean. Egia da ez dietela izenik eman prozesu hauei, arestian aipatutako kontzeptuei jarraiki; baina, beren terminologiarekin,

subjektibitatearen mugimenduak kontatzen dituzte, eta haiek gertatu den eraldaketa pertsonalaren berri ematen digute.

Halako informazioak ez ditugunean, aski da egiaren aurkikuntzaren prozesuari jarraitzea, haren une bakoitzari, gertakizunaren subjektu ez adierazia bera, izena emateko. Horixe dira Richard Loving eta Mildred Jeter bikotearen zein Warren eta Marshall medikuen kasuak.

Adibide hauek aukeratu ditugu, baina bistan da beste subjektu asko, beren sorkuntza eta aurkikuntzetan lehena eta geroa markatu dutenak, aukeratu ahal genituela:

Vasili Kandinsky

V. Kandinsky-ren hiru testu aztertuko ditugu (1996, Max Bill-en sarreran, 9-10 eta 27-28 orr. eta 2002: 179-180).

Kandinsky, arte abstraktu deritzogun gertakizunaren subjektua izan aurretik, arte inpresionistak interpelatua izan zen. Era berean, pentsatu eta formulatu egin du, modu artistikoan, gertakizuna jakintza bihurtzen den eraldaketa-prozesua. Bera, kreatzaile bezala, kontzientzien interpelatzailea izan da, ondorio guztiekin: “errefusak” eta “konbertsioak”. Hari guztiari buruzko testigantza baliotsu hauek utzi dizkigu.

Rückblicken-en honela deskribatzen ditu bere garapenaren inpresio artistiko erabakigarrienak: “Garai hartan nire bizitza markatu eta sakoneraino hunkitu ninduten bi bizikizun izan nituen. Lehena erakusketa frantsesa Moskun –lehenik Claude Monet-en ”Sarale-meta”, eta Wagner-ek Antzoki Inperialean zuzenduriko *Lohengrin*-en errepresentazio bat. Nik soilik arte errealista ezagutzen nuen, ia soilik errusiarra; maiz luzaro geratzen nintzen kontenplatzen Franz Liszt-en eskua Repin-en argazkian, eta antzeko gauzak. Bat-batean lehen aldiz ikusi nuen *koadro* bat. Katalogoak argitu zidan sarale-meta bat zela. Molestatu egin ninduen ezagutu ez izanak. Gainera, iruditzen zitzaidan margolariak ez zeukala ezein eskubiderik modu hain zehaztugabean margotzeko. Katalogoak argitu zidan sarale-meta

bat zela. Modu ilunean sentitzen nuen koadroak ez zeukala objekturik eta nabarmentzen nuen harriturik eta nahastuta liluratu ez ezik nire memorian modu ezabaezinean finkatu eta flotatu egiten zuela, beti ezustean, azken xehetasunetaraino nire begien aurrean. Hura dena ez zegoen oso argi eta ni ez nintzen gai esperientzia hartatik ondorio sinpleak ateratzeko. Aldiz, argitasun erabatekoan ulertu nuen koloreen indar liluragarria, ordura arte sumaezina, nire ametsetatik at zihoana. Tupustean, pintura indar liluragarri eta bikaina zen. Aldi berean –eta halabeharrez– objektuak, koadroaren elementu ezinbesteko bezala, erabat galdu zuen ospea. Laburbilduz: inpresioa neukan nire Mosku legendario haren parte bat oihal haren gainean zegoela".

Kandinsky artearen alorreko bi gertakizunei buruz mintzatzen hasten da (musika eta pintura), bere bizitzan aurrea eta atzea markatu zutenak eurak: "Garai hartan nire bizitza markatu eta sakoneraino hunkitu zuten bi bizikizun izan nituen". Esaten ari zaigu bi sorkuntza artistikok, Moskun izandako bi interbentziook (erakusketa piktoriko frantsesa, Claude Monet-en "Sarale-meta" eta Wagner-ek zuzenduriko *Lohengrin*-en errepresentazio bat), harentzat ezezagunak, interpelatu egin zutela. Aldarri egin zioten subjektibitatean, une hartara arte erregulatzen zuen araua alteratuz: "Nik soilik arte errealista ezagutzen nuen, ia erabat errusiarra…". Arte errealista zen arte-alorrean bere subjektibitatea arautzen zuena. Eta arte berriak, Inpresionismoak, interpelatu egiten du Kandinsky, bere subjektibitatea, bere imajinarioa alteratuz.

"Bat-batean lehen aldiz ikusi nuen koadro bat. Molestatu egin ninduen ezagutu ez izana. Gainera, iruditzen zitzaidan margolariak ez zeukala ezein eskubiderik modu hain zehaztugabean margotzeko."

Monet-en koadroak eragiten duen berehalako Interpelazioak ("bat-batean lehen aldiz ikusi nuen *koadro* bat) Kandinsky-ren subjektibitatea erregulatzen zuen Araua alteratu eta Angustia sortzen dio bere pinturan "aditu" izatearen Imajinarioa hausten duelako. Autorea harrapatuta dago koadroak sortu dion inpaktu subjektiboaren eta Arau alteratuak eragiten dion erreakzioaren

artean: “Katalogoak argitu zidan sarale-meta bat zela. Molestatu egin ninduen ezagutu ez izana. Gainera, iruditzen zitzaidan margolariak ez zeukala ezein eskubiderik modu hain zehaztugabean margotzeko”. Hara hementxe Angustiaren izaera eta esentzia: Gertakizun batek Araua-Legea hausteak beti sortzen digun ziurgabetasuna eta beldurra. Artean “aditu” izatearen Imajinarioa hausten du.

Ikus dezagun Angustiak (berriaren eta zaharraren arteko borrokak) nola jarraitzen duen operatzen Kandinsky-ren baitan, eta nola, artean modu nahasian, berriak bere subjektibitatea eraldatzen doan: “Modu ilunean sentitzen nuen koadroak ez zeukala objekturik eta nabarmentzen nuen harriturik eta nahastuta liluratu ez ezik nire memorian modu ezabaezinean finkatu eta flotatu egiten zuela, beti ezustean, azken xehetasunetaraino nire begien aurrean. Hura dena ez zegoen oso argi eta ni ez nintzen gai esperientzia hartatik ondorio sinpleak ateratzeko.”

Aditzera eman dugunez, Angustia subjektibitatearen egoera iragankorra da. Ezin da luzaroan egon fase horretan. Hiru dira Angustiatik irteteko bideak. Bat amore ematea, traizioa (Legeak presionatuta, amore eman eta Araura itzultzen gara, prezio altua ordainduz). Jakin behar dugu beti traizionatzen dela interes batengatik, ondasunen zerbitzuagatik. Eta beti eusten dela ideal batengatik, interes desinteresatuagatik. Amore ematen duen pertsonak ezin izango du inoiz subjektu izan, diote autore batzuek. Beste batzuek diote, beste gertakizun baten aurrean, amore eman duen pertsona subjektu izatera iritsi daitekeela.

Angustiatik irteteko beste bi bide posible daude: eromena edo buruaz beste egitea. Bi irteera hauek dira amore ematearen, traizioaren, larritasuna erakusten digutenak.

Angustiatik ateratzeko irteera benetakoa Kuraiaren bidez egiten da, hori da gainditzeko modu bakarra, Angustiatik Adorera igaroz Justizia egin dadin. Eskuartean daukagun gaiari dagokionez, arte errealistaren Araua hautsi eta, Kuraiaren bitartez, arte berria onartzea, pintura inpresionista, Monet-en koadroan errepresentatua, Justizia.

Ikus dezagun nola formulatzen duen Kandinsky-k: “Aldiz, argitasun erabatekoan ulertu nuen koloreen indar liluragarria, ordura arte sumaezina, nire ametsetatik at zihoana. Tupustean, pintura indar liluragarri eta bikaina zen. Aldi berean –eta halabeharrez– objektuak, koadroaren elementu ezinbesteko bezala, erabat galdu zuen bere ospea/sona. Laburbilduz: inpresioa neukan nire Mosku legendario haren parte bat oihal haren gainean zegoela”.

Kandinsky-k, Kuraiaren bitartez, Justizia egiten dio arte berriari, berarengan, arte berriaren bi elementuak onartzean (koloreak eta objektu-falta pinturan) gertatu den eraldaketa subjektiboa seinalatuz. Kandinsky-k, bere prozesu subjektiboa itxiz, formulatzen du arte berria nola integratzen den jakintza artistikoan: “Laburbilduz, inpresioa neukan nire Mosku legendario haren parte bat oihal haren gainean zegoela”.

Ikus dezagun orain, nola errepresentatzen duen Kandinsky-k modu artistikoan, Gertakizun baten aldaketa Jakintza bihurtuz: “Bizitza espirituala, eskematikoki errepresentatua, triangelu zorrotza da, atal desberdinetan zatitua, txikiena eta zorrotzena gorantz zuzendua dena. Gero eta beherago orduan eta zabalagoak, handiagoak, tamaina handiagokoak eta altuak dira triangeluaren atalak”.

Kandinsky-k, figura geometrikoaren bitartez, (triangelu zorrotza), sorkuntza artistikoaren prozesua (bizitza espirituala) erakusten digu. Forma egokia edozein sormen-prozesu errepresentatzeko.

Triangelua mantso mugitzen da, ia-ia hautemanezinez, aurrerantz eta gorantz; ‘gaur’ erpin altuena dagoen tokian, ‘bihar’ hurrengo atala egongo da. Hots, gaur erpin altuagorentzat ulergarria dena eta triangeluko gainontzekoarentzat disparate ulertezina dena, bihar eduki arrazoizkoa eta bigarren atalaren bizi-zentzua izango da.

Berriaren sorkuntza-prozesu eta transmisio konplexua errepresentatzeko, autoreak esaten digu triangelua mugituz ari

dela: “Triangelua mantso mugitzen da, ia-ia hautemanezinez, aurrerantz eta gorantz; ‘gaur’ erpin altuena dagoen tokian, ‘bihar’ hurrengo atala egongo da”.

Ondoren, triangeluari buruz adierazi diguna sorkuntza-, inkomunikazio- (errefusa) eta komunikazio-terminoetan argitzen du: “Hots, gaur erpin altuagorentzat ulergarria dena eta triangeluko gainontzekoarentzat disparate ulertezina dena, bihar eduki arrazoizkoa eta bigarren atalaren bizi-zentzua izango da”.

Hurrengo paragrafoan adibide batekin argitzen du arestian esandakoa, pertsona sortzailearen egoera subjektiboa aipatuz, bere obrak eragiten duen errefusa eta hura sozialki onartzearen mantsotasun gogaikarria dela-eta: “Batzuetan, erpinik altuenean gizon bakarra dago. Haren kontenplazio pozgarria bere barneko tristura neurtezinaren parekoa da. Harengandik hurbil daudenek ez dute ulertzen; haserre, iruzurgile edo ero deitzen diote. Holaxe aurkitu zen Beethoven bere bizitzan, iraindua eta bakartia gailurrean. Zenbat urte behar izan ziren triangeluaren atal zabalago batek, lehen berak bakarrik, okupatu zuena lortu zezan? Eta oroitarriak oroitarri, hainbeste iritsi al dira gailur hartaraino?”.

Azken paragrafoan, Kandinsky-k interpelazio-prozesua argitzen du (eta haren kausa), berriak “ukitutako” eta, beraz, gertakizunaren subjektu bihurtu diren pertsonak burutua: “Triangeluaren erpin guztietan artistak daude, bere ataletik harago doan oro profeta da bere inguruarentzat, eta gurdi tematiaren mugimenduari laguntzen dio. Ordea, ez badu ikuskera zorrotz hori edo xede baxuagoetarako erabiltzen badu edo amore ematen badu, bere ataleko kideak ulertu eta goratu egingo dute. Gero eta handiagoa atala eta bere maila baxuagoa, are handiagoa izango da artistaren diskurtsoa ulertuko duen masa. Jakina, atal bakoitza, kontziente edo (gehienetan) inkontzienteki, ogi espiritualaren gose da. Ogi hori bere artistek ematen diote; bihar hurrengo atalek eskuak luzatuko dizkiote”.

Hitz batez, Kandinsky-k arte abstraktuaren (berak sortua) errotiko errefusa aztertzen du, eta Franz Marc-en eraldaketa-prozesua, zeina, gertakizun honek interpelatua, subjektu

interbentziogile izatera igarotzen da, arte berriaren alde: “Munich-eko artista ‘abangoardista’ batek 1910ean, hemen aipatu nahi ezin ditudan hainbat oztopo gainditu ondoren, erakusketa bat antolatu zuen hiriko arte-galeria handi eta politenetako batean, ‘Atenas modernoa’ izena zeukana. ‘Atenienseek’ bere genio guztia erabili zuten, gehienetan asko zaintzen zutena, beste aldetik. Prentsak erakusketa “anarkista” berehala ixtea exijitu zuen (garai hartan oraindik ez zen “marxista” hitza erabiltzen), esan zutenez kultura bavariar zaharra arriskuan jarri zezaketen kanpoko artista batzuek diseinatua omen zelako. Ulertzera eman zen arriskutsuenak artista errusiarrak zirela: Dostoievsky bere “dena balio du” harekin. Bada, hain zuzen ere, baziren errusiarrak euren artean, baina baita frantziarrak, italiarrak, austriarrak eta iparreko alemaniarrak. Hori bai, bavariarrak bat bera ere ez. Galeriaren jabea kexu zen, egunero, itxi ondoren, jendearen gorroak lehortu behar zituela koadroetan. Esan beharra dago jendearen haserre hura ondo hezia zegoela; oihaletara jaurtitzen zituen karkaxak, baina ez zituen ebakitzen, behin nireekin gertatu zitzaidan bezala erakusketa batean beste hiri batean.

Munich-eko bizilagun bavariarren ohorea salbatzeko, esan beharra daukat, ez zela ahotsik altxatu erakusketa defendatzeko. Ahots bavariarrik ez, batere; bai ordea, prusiar ahots bat: Hugo von Tshudi-ren ahotsa, artean Bavierako museo guztietako Zuzendari Orokorra bera. Berlinera etorria zen, non Galeria Nazionaleko zuzendari izan baitzen.

Espiritu puru eta libreko gizona zen, energia agorrezin, eta borondate irmokoa; ez zuen kontzesiorik egiten. Hari esker egin ahal izan genuen erakusketa eta hari esker ez zen gertatu prentsak exijitzen zuen “berehalako itxiera”. Hura zen, baita ere, erakusketara etorri ohi zena galeriako jabea adoretzera, batzuetan erabat galtzen baitzuen burua.

Baina bazegoen han ahots soilik bavariar bat. Bat-batean agertu zen, Goi Bavierako herri txiki batetik aterata: Franz Marc-ek gutun bat bidali zion gure taldeari, zorion-gutun kartsu bat. Pertsonalki ez aurkezteko fintasuna izan zuen, berarekin harreman

pertsonalak ez estutzera behartzeko. Lehen aldiz beranduago ikusi nuenean, jakin nuen bere izaera noblearen arabera aritu zela.

Gizon-ale bakana zen. Haren kanpoko itxura barnearekin bat zetorren: “gogortasunaren” eta “biguntasunaren” konbinazio harmoniatsua zen”.

Nelson Mandela

Ondoren aztertuko dugun testuan (Mandela, 1995: 41-42 orr.) ere presente daude arestian aipatu ditugun Subjektu Prozesuaren elementuak: Erabakia, Interbentzioa, Interpelazioa, Apustua, Inkesta kualitatiboa; Araua/Supernia-Angustia-Kuraia-Justizia. Modu esplizituagoan Meligqili xhosa tribuko buruzagiaren interbentzioan. Metaforikoagoan, N. Mandela-k kontatutakoan.

Ebidentziaren aurka mantentzen dugu hasieran Etena izan zela (Gertakizuna). Gogora dezagun Hegel-ek (1974: 166) zioena: “*Bereizteko egintza jarraitutasun etena da*”. Eta mantentzen dugu printzipio hau zientziaren, artearen, politikaren eta maitasunaren edukietan gertatzen diren asmakizunak, berrikuntzak edo sorkuntzak –Gertakizunak– aipatzerakoan, Alain Badiou idazle frantziar ospetsuak dioenez (1992: 65).

Testuak Mandelaren “konbertsioa” jaso eta islatzen du, Hegoafrikan *apartheid*-erregimen injustuaren amaiera ekarri zuen gertakizun politikoaren subjektu eztabaidaezina izan zen. Meligqili-ren diskurtsoak ekarri zuen berritasuna hark jaso zuen errefusaren proportzionala da; azaldu eta ulertzen dena, haustura, etena, mozketa zekarrelako indarrean zeuden jakintza komunikagarriekin; tribuaren ekandu eta ohituren arabera, esan behar zenaz eta nola esan behar zenari buruz entzuleen artean zegoen iritzi maioritarioarekin.

Horrela da nola berrikuntzek, etenek, gertakizunek, alor sinbolikoan zein imajinarioan, igaroko duten kantitatearen, errefus maioritarioaren iritzi publiko aurkakoaren suzko froga pasako duten, ibilbide ezezagun eta ausazkoaren bitartez,

pribilegiozko tokia irabazteko, jakintza- eta informazio-trukaketaren prozesuetan, prozesu komunikatiboetan. Ba al dago inork, gaur egun, zalantzan jarriko duenik, Hegoafrikan zein planetako gainerakoan, testuak kontatzen duenaren onarpena?

Has gaitezen kontakizunaren ordenari jarraituz. Hizlari nagusia aurkeztu ondoren eta diskurtsoarekiko Mandelaren erreakzioa aurreratuz, autoreak dio buruzagiak "modu konbentzionalean abiatu zuela bere interbentzioa, komentatuz, zein bikaina den inork gogoratzen ez duen baino haruntzagotik datorren tradizioa gordetzea". Hau da, narratzaileak seinalatzen diguna da diskurtso konbentzional bat zela, erritualizatua, protokolozkoa, itxaroten zena; oso aspalditik errepikatzen zen iniziaziozko zeremonia, erritual bati zegokion bezala.

Alabaina, itxaroten zen komunikazio hura eten egiten da, alteratu egiten da, moztu egiten da Meligqili-ri zerbait gertatu zitzaiolako: "Orduan, guregana itzuli eta bere tonua aldatu egin zen bat-batean", kontatzen du Mandelak. Hizlariaren tonu-aldaketaren bitartez esan nahi diguna da zerbait erabakigarria gertatu zitzaiola tribuko buruzagiari; alokuzio konbentzional eta itxaroten zen hura haustea ahalbidetuko ziona. Zer ote zen? Eraldaketa subjektibo sakona, zalantzarik gabe. Hartara, suposatu behar dugu, bere herriak bizi zuen zapalkuntza-egoerarekiko desegokia zen hitzaldi erritualizatua hausteko Erabakia hartu aurretik, Meligqili-k, ezinbestean, zurien legeekiko beldurrak (Supernia) eta batik bat bere tribuaren errefusak (susmatzen zuena) sortzen zion Angustiatik pasa behar izan zuela; ezinbesteko beldurra gainditzeko Kuraiaz jantzi behar izan zuen, zailtasun ororen aurka aurrera egin eta ez amore eman Hegoafrikako gehiengo beltzarentzako Justiziaren bilaketan. Hara hemen A. Badiou-k (1982: 195-346) J. Lacan-en obran abiaturiko subjektu prozesuaren nozioak.

Meligqili, subjektu prozesuan murgildurik, eta egoerak presionatuta, ezin du aukeratu, ez du gogoeta egiteko denborarik; bat-batean aktuatu behar du, Erabakia hartu. Hots, diskurtso berria osatu, ustekabekoa, ordura arte inor pasatu ez den tokitik pasa eta holako ekitaldietan ohikoa ez den ibilbide ezezagunari jarraitu.

Etikaren eta moralaren arteko bereizketa hau, aukeraketaren eta erabakiaren artekoa, zeinarekin bat egiten dugun, Hegel-engan aurkitzen dugu, Badiou-k (1993:5) seinalatzen duen moduan. Erabakitzen duen subjektuak ez du ebaluatzen, ez ditu ekintzaren ondorioak neurtzen arauaren ikuspuntutik. Horregatik erabakia ezustekoa da, harrigarria, uneari eta pertsonari dagokienez.

Behin erabakia hartuta, buruzagiak gauzatu egin behar du, praktikan jarri. Honek, bere herriko gehiengo beltzak pairatzen zuen injustizia jasanezinaren aurrean, diskurtso bat mamitzen du, non egoera negargarri hori salatzen duen. Erabakiaren gauzatzeari Interbentzioa deitzen diogu. Meligqili gehiago mugitzen du egiak, Justiziak eta bere herriarekiko maitasunak, gizon zuri arrazistaren lege eta bere tribuaren arau sozialekiko beldurrak baino. Esan ahal dugu Interbentzioak infinituak eta berritzaileak direla, eta egoerak, prozesuak eta xedeak determinaturik daudela. Tribuaren buruzagiak erabakitzen du iritsi dela momentua Hegoafrikako beltzek pairatzen duten egoera eraldatzeko. Interbentzioaren berritasun-graduak egiten du, hasieran, komunikazioaren dimentsio errepikatzailetik at egotea. Jakintza zirkulatzailearen parte izan dadin, komunikagarri izan dadin, kantitatearen froga pasa beharko du, gehiengoak onartua izan beharko du, gorago esan dugunez.

Meligqili, bere interbentzioarekin, Hegoafrikako beltzek pairatzen duten injustizia sakon nabarmena erakutsi nahi du; horregatik, modu elkarrezin eta baztertzailean kontrajartzen ditu zeremoniaren Imajinarioa –“hara hemen gure seme-alabak”, esan zuen. “Gazte osasuntsu eta ederrak, xhosa tribuko gaina eta lorea, gure nazioaren harrotasuna. Erdaindu egin ditugu oraintxe, gizontasuna agintzen dien erritualari jarraituz”– eta egoera Erreala – “baina hemen nago esateko, agindu huts eta ilusiozkoa baino ez dela. Inoiz beteko ez den agindua da, gu xhosak, eta hegoafrikar beltz guztiak, herri konkistatua garelako–. Ondoren, gazte hauei itxarongo dien egoera izugarria deskribatzen die, bizi behar izango duten egoerak eta horren zergatia zenbatzen ditu: “Txabolatan biziko diren hirietara joango dira, alkohol merkea edango dute, eta dena lurrik ez daukagulako, aurrera egin eta

ugaldu daitezen. Birikak botatzeraino egingo dute eztula… Gazte hauen artean sekula gobernatuko ez duten buruzagiak daude…; sekula guda egingo ez duten soldaduak…; sekula irakatsiko ez duten maisuak [...]". Buruzagi xhosak adibide hauek darabiltza, aipatutako tesia, bateraezintasunean oinarritua, ikustratu eta justifikatzeko.

Arestian seinalatu dugunez, Interbentzio orok mozketa bat eragiten du, eten bat, hausketa bat dagoen eta dabilen sistema komunikatibo eta errepresentaziozkoan; Meligqili-ren berbaldi ezustekoarekin gertatu zen bezala, zeinak entzuleen itxarokizunak alteratu zituen, hauek diskurtso konbentzional bat espero baitzuten eta ez dei bat euren kontzientzietara. Mozketa deritzoguna da interbentzioa egiten duen pertsona definitzen duena. Honek sozialki onartutako prozesu komunikatibo eta errepresentaziozkoa hautsi eta beste berri bat sortu behar du. Horregatik, logikoa da interpelatua izan den pertsonaren erreakzio errefusezkoa: "Hari entzun et gero, nire ametsen kolore dirdiratsua uhertu egin zen bat-batean", gogoratzen du Mandelak, bere gazte xhosaren Imajinarioa gogoratuz.

Mozketaren bitartez, interbentziogileak pertsona orotan dagoen justizia-, elkartasun-, askatasun-, senidetasun-, berdintasun- eta egia-zentzuari begiratzen die. Kontzientzian ohartarazpen horri egiteari Interpelazioa esaten diogu. Zer egiten du tribuko buruzagiak beltz hegoafrikarrek bizi duten egoera aipatu eta haren kasu bortitzenak zenbatzen dituenean? Zalantzarik gabe, interpelatu egiten ditu entzuleak.

Meligqili-k bukaeran egiten duen aipamena, gure iritziz, gako horren arabera ulertu behar da: "Oso ondo dakit Qamata-k dena ikusten duela, eta inoiz ez dagoela lotan, baina susmoa dut azken boladan lokuman ez ote dagoen. Hola balitz, niretzat hobe azkar hiltzea, horrela bere aurrean aurkeztu ahalko baitut, esnarazi eta esan Ngubengcuka haurrak, xhosa nazioaren gaina eta lorea, hiltzen ari direla". Hizlariak, laburpen gisa, entzuleei esaten die, alegoria-moduan, ez diola beldurrik heriotzari. Hots, hautsi duela gizon zuriaren Superniaren formako Legearekin, Arauarekin, gainditu duela dagokion Angustia eta, Kuraiaren

bitartez, Justiziara igaro dela. Ez diola beldurrik izaera horretako konpromiso politikoak ekarri ahal dion zigorrari; animatuz, bere adibidearekin, injustiziaren aurrean kementsu izatera. Eta, era berean, Qamata lokumatuari egindako interpelazioaren adibidearekin, xhosa tribuko kontzientziak esnatzea bilatzen duela.

Interpelazioa denentzako bideratzen den arren, gutxi izango dira aukeratuak –hartuak, esango genuke guk–, deiak harrapatuak. Dakigunez, Nelson Mandela, eta mintzalditik aski berandura. Horrela konbertituak, berriz, interbentziogile bihurtuko dira. Hegoafrikako antzinako presidentearen kasua paradigmatikoa da horri dagokionez. Interpelazioaren xedea zailtzen duten faktoreak anitz dira; baina prozesua gehien oztopatzen dutenak dira imajinarioen sendotasuna eta halako 'mezuen' hartzaileen integrazio soziala. Egia izan arren deiturikoen sentiberatasuna, harmena batzuen eta besteen artean aldatuko dela, inor ez da aterako indiferente izaera horretako dei batetik.

Ezaugarri horietako interpelazio batek beti darama zori-gradu bat haren efektuei dagokienez. Xhosa gaztea Hegoafrikako buruzagi eztabaidaezin bihurtzea da esaten ari garenaren adibiderik onena. Imajinatu al zezakeen Meligqili-k bere diskurtsoak halako efektua izango zuenik? Noski ezetz. Eta, aldiz, bere burua jokatu zuen, esan ohi denez.

Apustu orok, hitzak seinalatzen duenez, beti ziurgabetasuna darama emaitzari dagokionez, haren efektuei dagokienez. Apustu egiten duenak konfiantza du intuizioan eta ez du esperantzarik deliberoan edo kalkuluan. Bereizketa hau presente dago Aristotelesengan (1995: 537- 547). Esku-hartzaileak "dadoak botatzen ditu", behin eta berriro, zoriari apustuaren bitartez irabazten saiatuz, interpelatuetako norbait, bere aldetik, einerbentziogile bihur dadin; jakinik, Mallarmé-k (1945: 457-477) esango zuen moduan, "*un coup de dés n'abolira le hasard*". Hau horrela izan dadin, desio baten pasioak bultzatu behar du ideia, halako moldez non 'jokalariak' halabeharrezko, ezinbesteko, ia predeterminatutzat hartuko baitu azkenean. Zerbait kontingente. Ausazko, baina gertatu besterik ez zeukan zentzuan, eta ez

gauzatu ezinezko zerbait balitz bezala. Tira, kontingente, noiz, zein, nola, zenbat eta abarri dagokienez. Hau hola izanik, zer da kontzientzia-interpelatzaile hau animatzen duena apustu eginez jarraitzeko? Konfiantza izeneko kualitate berezi batek. Bere indarretan du konfiantza, apustu egiten duena justua delako. Zentzu honetan, norberarengan zentraturiko kualitate bat da, Esperantza ez bezala, zeinak, izenak berak dioenez, beti uzten ditu itxarokizunak bestearengan. Horregatik, Meligqili-k egiten duen apustuaren berme bakarra interbentzioa justua den konbikziotik dator; hura gauzatzeko determinaziotik eta jarraitzeko, apustu egiten segitzeko erabaki etikotik. Iruditu lezakeen kontrara, bultzadaren arriskuak adorea sortzen du, optimismoa eta tinkotasuna subjektu interbentziogilerarengan. Hori transmititzen du xhosa buruzagiak bere mintzaldian.

Kontuan hartuz inor ez dela indiferente geratzen era horretako dei baten aurrean eta inor ez dela libratzen haren efektuetatik, arazoa da interbentziogileak nola ebaluatzen dituen interpelatuen erreakzioak. Modu intuitiboan, interbentziogileak berariazko balorazio-sistema propioa darabil, guk inkesta kualitatiboa izendatua. Nola eragiten da mezu interpelatzailearen ebaluaketa-prozesu honek? Inkestatzaile-interbentziogileak negatiboki markatuko ditu nola hartzaileek mezua onartzea hala harekiko indiferentzia-adierazpenak, eta positiboki interpelazioarekiko errefus-erreakzioak.

Ulermen- zein onarpen-erreakzioak eta indiferentziak seinalatzen diote inkestatzaileari bere eskakizunak ez daukala berritasun-gradu aski apelatuek ‘gaizki ikusia-gaizki esana’ kontsideratua dezaten, seinalatu dugunez. Aldiz, erreakzio negatiboek interpelatzaileari adierazten diote deitutako pertsonen subjektibitatea interpelazioak alteratua izan dela. Hots, bere balio-eskema (jakintzak, sinisteak eta iritziak), bere ideologia, gutxienez deitua, alteratua izan dela, erabat edo partzialki. Hauxe da Mandelak bere liburuan kontatzen duena buruzagi Meligqili-ren hitzak ematean: “Jendea isiltzen joan zen, gehiago eta gehiago, Meligqili buruzagiaren hitzen aurrean, eta uste dut sumintzen ari zela. Inork ez zituen egun hartan esandako hitzak

entzun nahi. Nik badakit, nik, nire aldetik, ez nituela entzun nahi. Buruzagiaren komentarioekin kartsuago baino haserreago sentitzen nintzela, eta hitzok errefusatu nituen gizon ezkajin baten lekuz kanpoko oharrak balira bezala [...]. Izorratzaile hark egun handia hondatzen ari zen, bere komentario burugabeekin nire harrotasun-sentsazioa suntsitzen zidalarik".

Badakigu etenik gabeko komunikazio-prozesuen efektuak neurtzeko erabiltzen diren inkestak irizpide kuantitatiboetan oinarritzen direla, zeinekin mezuaren ulermena, haren interesa eta iristen den hartzaile-kopurua neurtzen duten. Parametro horietatik begiratuta, imajinaezinezkoa da, pentsaezina, mezuaren onarpena, interesa eta ulermena negatiboak kontsideratzen dituen mezua, eta modu positiboan balioesten duena interpelatuengan eragiten duen errefusa.

Interbentzioaren iraupenak pertsona erreaktiboen subjektibitatea alteratzea bilatzen du –batere bermerik gabe, seinalatu dugun bezala–, hasierako errefus saihetsezin hori mezu berritzaileak daraman kausaren aldeko sinpatia bihur dezan. Hau da, prezeski, Nelson Mandelak testuaren amaieran esaten diguna: "Baina zergatik ulertzera iristen ez nintzen arren, haren hitzek ni hunkitzea lortu zuten. Hazia erein zuen nigan, eta luzaroan latente egon zen arren, azkenean hazten hasi zen".

Hots, Mandelak, metafora honen bitartez, adierazten digu nola bihurtu zen subjektu: nola buruzagiaren diskurtsoak interpelatu zuen ("Nik badakit, nik, nire aldetik, ez nituela entzun nahi. Buruzagiaren komentarioekin kartsuago baino haserreago sentitzen nintzela, eta hitzok errefusatu nituen gizon ezkajin baten lekuz kanpoko oharrak balira bezala [...]. Izorratzaile hark egun handia hondatzen ari zen, bere komentario burugabeekin nire harrotasun-sentsazioa suntsitzen zidalarik"), eta nola erabaki bat hartu zuen, nola hautsi zuen gizon zuriaren Araua-Legea (Supernia), nola gainditu zuen zigorrarekiko beldurrak sortu zion Angustia (27 urtez atxilotuta egon zen), nola hartu zuen Kuraia (desobedientzia zibila) eta Justizia lortu (Hegoafrikako *apartheid*-a bukatu).

Horrela gertatzen da interpelazioekin, non, kontzientzia-kuestionatzaile berriak lortu ez ezik, beste interpelatzaileen subjektibitatea elikatzen jarraitzen duten. Zentzu honetan, esan dezakegu Nelson Mandelaren autobiografia, lider handi honen interbentzio anitzekin ondua, izan eta izango dela, justiziaren, berdintasunaren eta elkartasunaren kausarekin konprometitutako pertsona ororen adimenaren pizgarri eta subjektibitatearen energia-iturri.

Hara hemen, beraz, Meligqili-ren diskurtsoa beste begi batzuekin behatzeko saio bat; konbentzituta, gertakizun orotan dagoen ‘ez jakindakoa’ beti gure begiek bilatzen dutena baino areago egongo dela.

Warren eta Marshall

Ondoren, Warren eta Marshall-en aurkikuntza, *Helicobacter Pylori* delakoa, aztertuko dugu, adibidez adierazteko, berria nola egiten den komunikagarri, zientziaren alorrean (Medikuntzan).

J. M. Pajares eta J. P. Gisbert-ek, “*Revista Española de Enfermedades Digestivas*-en” (2006) argitaratutako artikuluan emandako informazio interesgarriari jarraituko diogu.

Kontuan harturik gertakizunak jakintza bihurtzen diren prozesuak barnetik neurtzeko kontzeptuak zenbatu, azaldu eta aplikatu ditugula, eskuartean dugun kasua aztertzeko, artikuluaren autoreen esposizio-ordenari jarraituko diogu, eta aipatutako kontzeptuak (aurkikuntzak, errefusak eta onarpena) prozesuaren fase ezberdinei banan-bana aplikatzen joango gara.

Azpimarratu beharra daukagu ezen Warren eta Marshall-ek jarraitutako prozesua aztertutako hiru kasuetatik konplexuena dela. Erabaki, interbentzio, interpelazio, apustu, inkesta kualitatibo gehien dituena; dagozkien Superniarekiko transgresio eta errefusekin, saihetsezinezko angustia eta kuraiarekin batera, justiziaren bila.

Warren-ek 1979ko ekainaren 11n behatu zuen lehenengo aldiz bakterioa, 42 urte bete zituen egun berberean. Honela

komentatzen du aurkikuntza: “Nire eguneroko lanean ari nintzen biopsia gastrikoen ikerketarako prestakinak aztertzeko, eta gastritis kronikoko mukosa gastriko baten prestaakinan lerro urdin bat behatu nuen. Epitelio gastrikoaren azaleran. Handipen gehiagorekin, bazilo txiki anitz bereizi nituen, lerro urdina osatzen zutenak, irmoki atxikita epitelioaren azaleran. Murgilketarako objektiboarekin nire susmoa berretsi nuen”.

Hurrengo 18 hilabeteetan, Warren-ek kasu gehiago aztertu eta jaso zituen, non bakterioak beti agertzen ziren gastritisaren lesio histologikoetan. Patologoa zenez, argi zeukan bakterioak, edozein ehun handituan, agente kausaltzat hartu behar zirela. Aitzitik, dogma baten aurka egin behar zuen, alegia, bakterioak ez direla urdailaren ingurune azidoan hazten. Inork ez zuen harengan sinisten, bere emazte Win psikiatrak izan ezik, kartsu animatzen baitzuen.

Hitz hauekin aitortzen zuen Warren-ek elkarrizketa batean: “Miresten dut nire emaztea eta eskertzen diot bere laguntza morala, zeren, bost seme-alaben ama izanik, eta nardatua egoteko arrazoia edukita, bere senarrak bere denbora eta diru guztia sartu baitzuen existitzen ez diren bakterioak bilatzen; aitzitik, etxera itzultzean, batzuetan egunsentian, entzun eta animatu egiten zuen”. Orain, egun haietan pentsatzen duenean, uste du bere emazteak argudio guztiak zeukala, gaixo bezala, bere kide psikiatrak bisitatzera behartzeko.

Warren, ezustean, egiten zituen biopsia gastrikoen aurkikuntzak interpelatua izan da. Uste zuen aurkikuntza bat zela eta ziur harrituta egon zela, pozik eta kezkatuta aldi berean. “Aldiz, dogmaren aurka borrokatu behar zuen, hots, bakterioak ez direla urdailaren ingurune gastrikoan hazten”. Hau da, Warren-ek bazekien doktrina medikoak, Legeak, Arauak (Superniak) “dogmak” kontrakoa zioela. Eta horrek Angustia zekarkion. Kontra zeukan komunitate medikoa et soilik bere emazteak sinetsi eta animatzen zuen. Senarraren interbentzioek interpelatua izan zen.

Aitzitik, Warren-ek berak, une batzuetan, “dogma” barneratu zuen, Angustia eragiten baitzion amore ematera bultzatuz, Araura itzultzera. Orain, une haietan pentsatzen duelarik, uste du emazteak argudio guztiak zeuzkala, gaixo bezala, bere kide psikiatrak bisitatzera behartzeko. Warren-ek bazekien, guk guztiok bezala, araua hausten duena anormala dela; hots, burutik jota dagoela, gaixo dagoela eta psikiatrarengana joan behar duela…

Aldiz, Warren-ek erabaki zuen ikertzen jarraitzea, interbentzioak egiten jarraitzea. Ez zuen amorerik eman, ez zuen atzera jo. Eta apustu egiten jarraitu zuen. Haren interbentzioek Len Metz, Saileko patologoa interpelatu zuten: “Benetan uste baduzu aurkikuntza garrantzitsua dela, jarraitu bilatzen paziente gehiagoengan”.

Hurrengo interbentzioetan, bilatzen du berrestea, berak behatutako bakterioak gastritis kronikoetan presente daudela eta ez histologia gastriko arrunteko kasuetan: “Warren-ek bakterio-bilaketarekin jarraitzen du mukosa gastrikoko prestakin histologiko guztietan, eta egiaztatzen du, hain zuzen, presente zeudela gastritis kronikoko forma aktiboetan. Kasu askotan, foku txikiak agertzen ziren. Ziurtatzeko, are gehiago, mikroskopio elektronikoarekin egindako irudiak aurkezten dizkie irudi-klase hauetako irudietan aditu direnei, zeintzuek bakteriotzat berresten baitituzte, Fung eta kolaboratzaileek 1979an aldez aurretik behatu eta argitaratutakoak parekoak direlako. Behatutako bakterioak jankide direla –ez patogenoak– baztertzeko, 20 kasu aztertu zituen, zeinetan histologia gastrikoa normala baitzen, zelula handitu gabeak eta bakteriorik gabe”.

1981ean, Warren-ek, bakarrik lan egiten aritu baitzen, Barry Marshall-en bisita du. Marshall mediku gazte bat da, zeinak ikerlan bat egin behar duen, bere nagusiak eskatuta, hark Warreni buruz iritzi kontraesankorra zeukan arren: “Zerbait interesgarri nahi baduzu, seguru aski Anatomia Patologikoko Sailean aurki dezakezu; bisita ezazu Warren “ero” hori, gastritisa gaixotasun infekzioso bihurtzeko saiakera baitabil”.

Lehen une batean, ez oso konbentzituta (ez zen interpelatua sentitzen), Marshall-ek onartu egin zuen Warren-ek proposatutako lana. Emaitzak ikusi zituenean, ordea, interpelatua sentitu eta beste interpelatzaile bat bihurtu zen (erabakia hartu zuen, imajinario eta sinboliko zaharra hautsi zuen), adorez, kuraiaz eta determinazioz betea apustuarekin jarraitzeko: “Atseginez konprobatu zuen bakterioa ez zela azaltzen mukosa gastriko handitu gabean. Behaketa horretan abiaturik, bere gogo-berotasuna proiektuarekiko pasio bihurtu zen, zeinari bere adimena, borondatea eta lan-denbora eta aisia eman zizkion”.

Hurrengo pausoan, hasieran arrakastarik izan ez zen arren, zoria, azarea, apustuaren emaitza, lagungarri azaldu zen. “*Campylobacter* delakoren antzekotasunagatik, bakterio honetarako ingurune- eta inkubazio-denborak hartu zituzten. Metodo honekin porrot egin zuten lehen bi saioetan. Aitzitik, fortunak lagundu egin zien bi ikertzaile temati hauei. Oporretatik bueltan, laborategiko tekniko bat konturatu zen biopsia 35-eko kultiboaren plaka ez zela erretiratu estufatik. Plaka arretaz behaturik, kolonia garden ñimiñoen presentziaz konturatu zen. Bakterioak identifikatuta, ohartzen da prestakuntza histologikoetan erabilitakoak bezalakoak direla”.

Ikerketa-prozesuko arrakasta honen ondoren, hurrengo fasera pasatzen dira, infekzioa artatzeko farmakoen bila. Hots, erabakitzen dute, interbentzioa egiten dute, apustu egiten dute, interpelatu, inkestatzen dute, berriaren bilaketako prozesuan aurrera egitea. Hara hemen lehen pazientea, zeinari, tratamendua ezarririk, emaitza oneko agertzen den: “1981eko urrian, oraindik bakterioa kultibatu gabe, lehen pazientea artatzen dute, jatorri errusiarreko gizon adinekoa, zeinaren biopsiak *Campylobacter-like* organismo asko erakusten zituen. Tetraziklina-rekin artatu zuten, 14 egunez, oinarri harturik aldez aurreko ezagutza, alegia, *Campylobacter* espezie hori antibiotikoarekiko sentikor zela. Eurek bazekiten tratamendu harekin etikaren mugak urratzen ari zirela, eta lortutako emaitza anekdotikoa zela, balio zientifikorik gabea. Kontsiderazio hauek pazienteari azalduta, onartu egin zuen. Tratamenduarekin abdomeneko mina eta goragalea

desagertu egiten dira. Kontroleko endoskopian mukosa gastrikoa gorriturik ikusten jarraitzen duten arren, hantura akutuzko osagarria hobetu egin zen azterketa histologikoan eta bakterioak desagertu egin ziren".

Interbentzio arrakastatsu honek subjektibatuta, erabakiak hartzen, interbentzioak egit, interpelatzen, apustu eginez, inkestak egiten (entsegu terapeutiko berriak, farmazia-konpainien kolaboraziorik eza, farmazia-konpainia holandar baten laguntza), aurre egin behar izan zituzten oztopo berriei aurre egiten (finantzazioa, zein farmako aukeratu). Marshall gazteak "hainbat farmazia-konpainiekin konektatu zuen, arrakasta eskasarekin. Gist-Brocades-ek, bismuto-gatza (bismuto subzitrato koloidala) sintetizatu zuen Herbereetako konpainia batek) erantzun egin zion Marshall-en eskakizunari, farmakoari buruz hainbat artikulu bidaliz, non erakusten den bismuto gatz horrekin artatutako ultzera peptikoa (UP) zuten pazienteetan zimetidina-rekin (6) artatuak izan ziren pazienteetan baino errezidiba-kopuru txikiagoa zegoela, eta bakterioen desagerpena, bismuto gatzekin artatuen artean".

Datu horiek subjektibatuta, hainbat farmakorekin esperimentatuz (interbentzioak eginez) eta emaitzak ebaluatuz jarraitzen du, zeinak, eztabaidaezinak ez diren arren, erabaki berriak hartzera bultzatzen baitzituzten: "Datu eskasekin, nahiz eta oinarri zientifikoarekin, Marshall-ek entsegu kliniko prospektibo bat diseinatu zuen, non bi adarretan banaturiko pazienteak sartzen ziren: batean gaixoek Denol (formulazio galenikoa suspentsioan) hartuko zuten eta bestean zimetidina (Tagamet). Itsu bikoitza delako baldintza ezin izan zen bete, beste ikertzailerik kolaboratu ez zuelako. Paziente gutxik onartu zuten, talde bakoitzeko soilik 15ek. Emaitzak ez ziren gogobetegarriak izan errezidiba-kopuru berbera ikusi zutelako bi taldeetan. Aitzitik, tratamenduaren aurreko eta ondorengo azterketa histopatologikoan, konstatatu zuten gastritisa gutxitu egin zela bismuto gatzak hartu zutenen artean.

Emaitzak erabat gogobetegarriak izan ez ziren arren, gure subjektuek ez dute amore ematen, ez dute atzera jotzen, apustu

egiten jarraitzen dute: “Hala eta guztiz ere, aurrera doaz protokoloarekin. Denol-ekin (tableta murtxikagarriak, aurkezpen berrian) artatzen dute errezidiba ultzerosoa duen paziente bat. Tratamenduaren emaitza gisa periodontitis bat garatzen du, eta metronidazol-ekin artatzen da. Kontroleko endoskopian, UD sendatuta zegoen eta bakterioa desagerturik. Kointzidentzia ala bismutoaren eta metronidazol-en efektu sinergikoa? Marshall-ek erantzuten du metronidazol-en sentikortasun bakterianoa konprobatuz 10 kultiboetatik 8tan. Denol-i antibiotiko hau gehitzen dio, biterapia berri batean, zeinarekin 10 paziente artatuetatik 8tan infekzioa sendatzen (erauzten) baita. 1984. urtean, bismuto gatzen pauta duala amoxizilinarekin edo tetraziklinarekin probatzen du, eta erlatiboki eraginkorrak izan ziren, nahiz eta hasierako bismuto gatzenak, metronidazol-ekin asoziatuak, emaitza txarragoak dauzkan”.

Aitzitik, gure ikertzaileen determinazioa, behin eta berriro apustua egiten jarraitzen dutelarik, etsipenik gabe, ibilbide zailtasunez betean, non aurrerakuntza garrantzitsuak egin zituzten, (oraindik ez definitiboak), ‘ongi ikusia-ongi entzuna’ izaten hasten da, erresistentzia batzuekin oraindik. “1984an bi ikertzaileek artikulu oso bat, lortutako datuekin, Lancet aldizkarira bidaltzen dute. Ostera, editoreek ez dute berehala onartzen, orraztaileek, zeintzuei artikulua bidali zieten, ez zuten aski garrantzizkoa ikusten argitaratzeko. Autoreek beste orraztaile batzuk iradokitzen dituzte, zeinek azkenean onarpena ematen baitute. Editoreek oso ohar editorial gorazarrezkoa gehitzen dute, aurkikuntzaren orijinaltasuna eta garrantzia azpimarratuz”.

Marshall-ek porrot egin arren Stuar Goodwin-ekin batera egindako esperimentuetan –*Compylobacter*-en kultiboak txerrietan inokulatzea– horrek kikildu ordez, adoretu egin zuen, berak, bere gorputzean, bakterioa inokulatzeko, Koch-en postulatuei jarraiki, eta hori bere nagusi eta patologo lagun baten aholkuak baztertuz: “1984-ko urtarrilean, Marshall-ek Mikrobiologia Esperimentaleko Sailean lan egiten zuen Stuart Goodwin mikrobiologoarekin batera, *Campylobacter*-en kultibo puruak txerrietan inokulatzea erabakitzen du, txerria horretarako

animaliarik aproposena delakoan. Esperimentuek porrot egin zuten. Bakterioa autoinokulatzea erabaki zuen orduan, eta Ian Hislop bere nagusiari ematen dio horren berri, baita bere lagun patologo David Mac Gechie-ri ere, zeinak, biak, saiatzen baitira amore eman dezan horretan, izaera zientifikoko eta etikoko argudioak azalduz. Entzungor egin eta bere erabakiari eusten dio irmoki".

Marshall-ek berak bere erabakia erlatibizatzen duen arren, adieraziz, infekzioa hartzeko arriskuan zegoela, baina frogatuta sendagarri zela, pentsatzen zuen era horretara bere aurkikuntzarekiko erresistentziak gainditukо zituela. Gure iritziz, hauek dira prozesu osoan erabaki eta interpelaziorik garrantzizkoenak: "Lehen sei egunetan Marshall-ek ez zuen ezein sintomarik nabaritu. Zazpigarrenean, goragaleek eta okadek esnatu zuten. Hiru egunez iraun zuten. Okaden materiala kolore argikoa zen eta ez zeukan zapore azidorik. Hamargarren egunean, bigarren endoskopia egitera doa, zeina emanaldiaren bukaeran egiten duten, paziente asko zeudelako. Apatia eta ahultasun fisikoa sentitzen zuen arren, ez zuen inaktiboki itxaron, goizean paziente infektatuei tratamendua preskribatzeko lana egin baitzuen. Bigarren endoskopiak lehenengoa baino nekosoagoa izan zen. Biopsiak gastritisa erakutsi zuen, eta kultiboan *Campylobacter*-a ugaritu zen. Egun horretan, bakterioaren kultiboa autoinokulatu zuen berri eman zion emazteari. Hark haserre begiratu eta bere lau seme-alabak erakutsi zizkion. Marshall-ek harekiko bakeak egin zituen, bere ohiko umorez gogoratuz, komunitate zientifikoaren gehiengoak uste zuela inokulatutako bakterioa ez zela patogenoa. Sendaketari ekin zion bismuto gatzekin eta metronozidal-ekin, 14 egunez, eta ondoeza desagertu egin zen. Hirugarren endoskopian, tratamendua hartu eta hilabetera egina berau, histologiak normaltasuna errekuperatu eta bakterioak desagertu egin ziren (12).

Komunitate zientifikoaren erreakzioa hain interpelazio zuzen honen aurrean, hainbat argudio bitartez, errefus gogorra izan zen. Hara hemen haren arrazoiak: "1982ko urrian, Marshall-ek hasierako datuak aurkezten ditu Medikuen Kolegioko bilera

lokalean, eta oso kritikatuak izan ziren. Objekzio nagusia izan zen, gastritisa UDrekin asoziatzea, komunitate zientifikoak soilik UGrekin erlazionatzen baitzuen. Argudio honi aurre egiteko, Marshall-ek literatura berrikusi eta 1950eko artikulu bat aurkitu zuen, non dokumentatua agertzen baitzen UD zeukaten pazienteen %100-ek gastritis antrala zeukatela".

Aldiz, Marshall eta Warren ez dira angustian erortzen eta lankide australiarrak interpelatzen jarraitzen dute, haiengandik ere errefusa osoa jasotzen dute: "1983ko otsailean, *abstract* bat bidaltzen diote Gastroenterologiako Elkarte Australiarrari, baina ez zen onartua izan. Komite zientifikoak, bere erantzuneko eskutitzean, errefusa zuritzen zuten, hartutako 67 lanetatik 56 onartzea muga numerikoa zelako. Haienak ez zeukan interes zientifikorik".

Hamaikagarren errefus eta guzti, gure ikertzaileek ez dute amore ematen, ez dute lur jotzen, erabakiak hartzen jarraitzen dute, interpelatzen, inkestatzen, apustu egiten eta lortzen dute mikrobiologo bat gertatzen ari zen gertakizunaren subjektu bihurtzea, eta interpelazio-prozesuan lagundu zien. Ezetzak ez zituen ikertzaileak desadoretu. Martin Skirrow *Campylobacter*-ari buruzko mikrobiologo aditu ingelesarekin konektatzen dute, eta hark haien datuak berrikusi eta kultiboa errepikatzen du bere pazienteen artean, emaitza berberak ateraz. Haien aliatu bihurturik, lortzen dute *Campylobacter*-i buruzko *abstract*-a urte horretan bertan Bruselako mikrobiologoek antolatutako Workshop-en onartua izatea.

Subjektu berria determinatzaile izango da gertakizunari izen ematearen prozesu konplexuan: "Skirrow-ek kolaboratu egiten du bakterio berriari izen ematearen bilaketan, Marshall omentzeko antolatutako bazkari batean, nora gonbidatua izan zen *Campylobacter laridis*-a kaioan aurkitu zuen dermatologo prestigiodun bat. Eztabaida lasai baten ondoren, *Campylobacter* sustantiboa onartu zuten (bakterio haren antzagatik) eta *pylori* edo *pyloridis* adjektiboa, batik bat alor pilorikoan agertzen delako".

Une horrez geroztik, Warren eta Marshall-en interbentzioek, interpelazioek gero eta mikrobiologo, gastroenterologo eta anatomopatologo gehiago bihurtzen dituzte gertakizun berriaren subjektu: “Aipatutako *Workshop* hartan, komunikazioaren datuek bertaratutako ikertzaile prestigiodunen interesa piztu zuten *Campylobacter*-i buruzko ikertzaileek, zeinek, une horretatik aurrera, *Campylobacter pylori*-ra zabaldu zuten euren ikerlana. Marshall-ek hainbat gastroenterologo eta anatomopatologo interesatu zituen bakterio honen ikerkuntza egitera”.

“Gaizki ikusia-gaizki esana”/“ongi ikusia-ongi esana” bilakatzeko prozesuaren inflexio-puntu bat izan zen, gertakizunaren bi subjektu (Warren eta Marshall) nagusien diferentzia gaindigarri batzuk tarteko, mailarik handieneko aldizkari zientifiko (Lancet) batean bi zientifikoek bidalitako eskutitz bana argitaratzea: “1983an, bi ikertzaileek, Warren eta Marshall-ek, nork bere aldetik, beren aurkikuntzak ezagutzera eman zizkioten mundu zientifikoari, Lancet aldizkari prestigioduneko editoreari bidalitako bi eskutitz laburretan. David Fox aldizkariaren zuzendariordeak harridura erakutsi zuen bi eskutitz jasotzean titulu berberarekin, eta bi autore ezberdinek idatziak. Haien arrazoiak ezagutzeko, haiekin kontaktuan jarri zen. Warren-ek argudiatzen zuen lehena izan zela bakterioak ikusten, beraz aurkitzaile orijinala izatearen eskubidea galdegiten zuen. Marshall-ek, bere aldetik, autoretzan lehentasuna galdegiten zuen berak koordinatu eta bultzatu zituelako kultiboak, entsegu klinikoa, beste mikrobiologoekiko kontaktuak, etab. Arrazoi hauek kontuan hartuta, editoreak onartu zituen eskutitzak titulu berberarekin argitaratzeko, *Unidentified curved bacilli on gastric epithelium in active chronic gastritis*, 1983ko ekainaren 4an (13,14), gerora Medikuntzako aldizkari nagusietan milaka aldiz aipatuak izan diren erreferentziak.

1989an, berebiziko garrantzia daukan egitate bat gertatzen da: gertakizunari izen emateak, *Helicobacter pylori*, nazioarteko komunitate zientifikoak onartu izana adierazten du. Azkenik, gantz-azidoen edukiari buruzko datu-batzea, gasezko kromatologia likidoaren bitartez, eta DNA-DNA hibridaziozkoak,

beste bakterioetan lortutakoarekin alderatuz, Goodwin-ek gidatutako mikrobiologo-talde batek demostratu zuen *Campylobacter pylori* hura kide ezberdina zela, *Campylobacter* espezieari ez zegokiona, baizik ezaugarri morfologiko eta biokimikoki egiturazkoak erakusten zituela, *Helicobacter* genero berriarekiko antz handiagokoak. Bertan demostratzen dute *Camylobacter* izenaren ordez *Helicobacter pylori* aldatzea abalatu zuten egitateak. Orduz geroztik, izen hau mundu osoko komunitate zientifikoak aitortua eta onartua izan da.

Era berean, seinalatu behar ditugu *Helicobacter pylori* aurkitzeak medikuntza-alorrera ekarri zituen ondorio garrantzizkoak: “Bakterioaren aurkikuntzak aldaketa kontzeptual sakonak ekarri ditu gaixotasun gastroduodenalak ulertzeko”. Adibidez, 1994an, Osasun Erakunde Mundialak “*Helicobacter pylori*-a sailkatu zuen minbizi-agente tipo 1 bezala”.

Hara hemen nola “gaizki ikusia-gaizki esana, ongi ikusia-ongi esana” bilakatzen den: “*Helicobacter pylori*-l eragindako infekzioaren eta gastritis, UD, UG, kartzinoma eta linfoma gastrikoaren arteko harremana frogatu zuten egitateen kontsistentziak bitarte diagnostiko eta terapeutiko berriak erabiltzea justifikatu zuen, ordura arte erabilitakoen oso ezberdinak, iraultzailetzat jo zirenak”.

Ikus ditzagun “arrazoi” batzuk (izaera honetako prozesuetan erabilitako berberetsuak), zeinen arabera *Helicobacter pylori* gertakizuna komunitate zientifikoak luzaroan errefusatu zuena: “Galdera horri erantzutea ez da batere erraza. Zalantzarik gabe, eguneroko jardun klinikoa gidatzen duen portaera errutinarioak izan zuen bere eragina. Era berean, aldaketarekiko errefusak, egia ofiziala (‘ingurune azidoan ez dira bakterioak hazten’) errefusatzeko zailtasunak galarazi zuten hainbat medikuk aurkikuntza onartzea”.

Beste faktore batzuek, ez hain pertsonalak, arrazonagarriagoak eurak, komunitate medikoan sortutako eszeptizismoari eta zalantzei lagundu zieten. Edozein aurkikuntza biologiko, batik bat medikuntzarekin lotua, gaixotasun baten alde

etiologiko kausalean zein terapeutikoan, ikerkuntza, oinarrizkoa zein klinikoa, dezenteren laguntza eskatzen du. *Helicobacter pylori*-ri dagokionez, oinarrizko ikerkuntza deuseza zen hasieran, edo oso mugatua. Modelo animala falta zen, non inokulazioak giza urdailean behatutako lesioak erreproduzituko zituen, eta horrek hipotesi patogenikoaren demostrazioa zailtzen zuen; beraz, hasieran emandako azalpenak eskasak edo sinesgarritasun gutxikoak baitziren.

Era berean, hasierako tratamenduak sendatekak lortu zituen arren, oso eskasak izan ziren, eta artatutako pazienteen proportzio altua sendatu gabe geratzen zen. Honekin lotuta, interesik eza, apatia eta batzuetan, farmazia-konpainia handien errefusa, aitortua eta planifikatua, UPren terapian interes komertzial kontrarioak baitzeuzkaten (infekzioen aurkako terapiak farmako antijariatzaileak luzaroan hartzea saihesten zuen, gutxiago salduz).

Ikusi berri dugunez, berriarekiko errefusak zerikusia du hainbat faktorerekin: interes korporatiboekin, ekonomiko, pertsonal, sozial eta abarrekin. Azken finean, araua hausteko beldurra, indarrean dagoen legea apurtzea (sozialki onartutako jakintza aurreiritzi ekonomikoak eta abar alteratzea).

Aitzitik, beti bezala, zientifiko-talde murritz bat, gertakizunaren subjektuek interpelaturik, subjektu interbentziogile bihurtu zen, eta haiek, aldi berean, gertakizunaren beste subjektu berriak ateratzea ahalbidetu zuten: “Aitzitik, ikertzaile kliniko, mikrobiologo, inmunologo, anatomopatologo eta farmakologoen gutxiengo nabarmenak hasieratik onartu zuen aurkikuntza, aurkikuntzaren orijinaltasunak erakarrita eta haren aplikazio kliniko berehalakoak erakarrita. Askok iker-eremua aldatu zuten, irisgarritasun-erraztasunak eta giza urdailaren manipulazioak diseinatutako esperimentatuak egitea ahalbidetzen baitzuen. Kliniko batzuk beren paziente ultzerosoak berehala artatzen hasi ziren, errezelo kezkagarriarekin, baina itxaropenez eta gogoberotasunez eta gaixoen atseginez”.

Hara bada, nola, jakintzatik, komunikaziotik azaltzen diren lan honetan aztertu ditugun aipatutako prozesu subjektiboak: “Ez sinestunen, burugogorren pertsuasioa bere ekandu klinikoak aldatzeko prozesu mantso eta zaila izan zen hasierako urteetan, laguntza finantzariorik ez zelako ikerkuntzetarako eta lortutako datuak hedatzeko. “Sinestunen”, konbentzituen irmotasunak, ordea, aldaketa lortu zuen”.

Ikus ditzagun berriaren hedapen- edo transmisio-prozesu honen faseak, jakintza zirkulatzailetik azalduak. “Arrakastak animatuta, kongresuak antolatu ziren hainbat hiri europarretan: Ulm, Toledo, Bolonia eta abarretan, asistentzia progresiboki gorakorrean; Lisboako batzarrean, adibidez, 2.400 lagun bildu ziren, 1997an. Talde europarraren azken bilkuran, Kopenhagen, erlatiboki jende ugari bildu zen baita ere, funtsean mediku klinikoen faltan, urriagoa berau.

1994an, AEBetako Osasunaren Institutuak eztabaida bat antolatu zuen *Helicobacter pylori*-k eragindako infekzioari buruz eta kontsentsuzko dokumentu bat idatzi zuen, zeina mediku amerikarrentzat gida praktikoa izan zen gaixo ultzerosoak artatzeko. Horretarako *Helicobacter pylori*-ri buruz lan egin zuten hainbat mediku klinikoren bilkura bat antolatu zen, gaiaz eztabaidatu eta akordiora irits zitezen pauta diagnostiko eta terapeutikoei buruz. Akordio minimoak lortu zituzten, UP sinple berragertzailea-ren tratamendua jasotzen zen soilik, urte horretan bertan urte hartan bertan (38) *JAMA* aldizkari zientifikoan argitaratutako dokumentu batean gauzatuak. Bi urte beranduago, Europako Taldeak, Maastricht-eko bilkuran, ohartarazpen zabalagoak adostu zituen, *Helicobacter pylori*-ren tratamendu erauzleari buruz: UP sinplea baita konplikatua ere, gastritisa, linfoma, dispepsia, kartzinoma gastriko *in situ*, ebidentzia zientifikoko gradu ezberdinean. Era berean, astebeteko pauta erauzle hirukoitza aholkatu zen, 14 egunekoaren ordez, eta laukoitza protoien bonbaren inhibitzailearekin, bismuto, tetraziklina eta metronidazol-ekin (39). Oraintsuago, *Helicobacter pylori*-k eragindako infekzioarekin lotutako errekomendazio europarren bigarren edizioa argitaratu da.

Argitalpen horien ondoren, gomendatutako pauta terapeutiko eta indikatzaile diagnostikoak mundu osoan onartuak izan ziren.

Japoniako mediku eta ikertzaileek eta Asiako beste herrialdetakoek beren ahaleginak batu zituzten. 1995ean, *Helicobacter pylori*-k eragindako infekzioa eta gaixotasun gastroduodenal asoziatuak ikertzeko Elkarte Japoniarra sortu zen. Ikerketa eta informazioaren hedapenerako kolaborazio-proiektu bateratuak antolatzen dira. Urte bete beranduago, Graham-ek bakterioari buruzko lehen aldizkari espezializatua argitaratzen du, *Helicobacter* izenekoa

Geroago Bordelen, Galway-n hainbat metodologia-ikastaroak antolatu ziren. Espainian, Sigüenza *Helicobacter pylori*-k eragindako infekzioazko entsegu klinikoari buruzko ikasturte baten egoitza da. 1997an, talde europarrak lan-saio bat antolatzen du entsegu klinikoak protokolizatu ahal izateko gida bat lortzearren. Emaitzak urte hartan bertan argitaratu ziren".

Aurkikuntzaren irismen sozialaz jabetzeko, pentsa dezagun munduan zenbat jende infektatzen den. "Gaur egun, mundu osoan, 2.000 milioi pertsona bizi da infekzio horrekin, zifra honek erakusten duen gaitasun hedatzailearekin, transmisio-mekanismo lehentasunezkoa pertsonatik pertsonara delarik. Garapen ekonomiko eskaseko herrialdeek %80koa baino infekzio-prebalentzia handiagoa dute, hau da, gastritis, UP eta kartzinoma gastrikoaren tasa altua da. Kartzinoma gastrikoa, hainbat herrialdetan, lehen heriotza-iturria da.

Erronka berria alor honetan, eta gertakizun berria sortuko duena, ondoko hauxe da: "Txerto prebentiboa garatzeko ikerkuntza duela hainbat urte hasi zen arren, oraindik ezin izan da lortu. Txerto prebentibo eta sendatzailea lortzeak, eta haren erabilpen potentzialak, eskala handian, infekzio-intzidentzia handia duten herrialdeetan, erronka handia izaten jarraitzen du".

Amaitzeko, *Helicobacter yylori* gertakizuna disentsu planetarioa izatetik kontsentsu mundiala izatera igaro da, lokaletik (Australia) egia unibertsal bihurtuz: 2005eko azaroan, Robin

Warren eta Barry Marshall-ek Medikuntza eta Fisiologiako Nobel Saria jaso zuten. Komiteko kideek honela laburbiltzen zuten haien ekarpena zientziari: "Berebiziko eta ezusteko aurkikuntza da urdaileko infekzioa (gastritisa) eta urdaileko zein duodenoko hantura edo infekzioa (gaixotasun ultzeroso peptikoa), *Helicobacter pylori* izeneko bakterioak eragindako urdaileko infekzio baten emaitza izatea".

Richard Loving eta Mildred Jeter

Azkenik, maitasun-gertakizuna aztertuko dugu. A. Badiou-ren (2009), *Éloge de l'amour* liburuan, eta gorago, lehen lerroetan, aipatutako kasu batzuetan oinarrituko gara.

Maitasuna gertakizun bat da; hots, egitate singularra gure bizitzetan aurrekoa eta ondokoa markatzen duena. Maitasuna gertatzen da bi pertsona ezberdinen arteko elkar-topatze ausazko edo azarosoan. Hor hasten da bizitza-prozesua, denboran zehar gauzatzen dena, Biaren ikuspuntutik (eragozpen guztien gainditzea), eta ez Bataren ikuspuntutik.

Elkar topatzearen gertakizuna maitasunezko deklarazioan ("maite zaitut") finkatzen da, maitasun-prozesuan zehar birdeklaratzen dena. Horrela pasatzen da elkar topatzetik, gertakizun-modura ulertuta, egia-prozesuaren elaborazioaren hasierara, mundu berri batean non, sexualitatea, seme-alabak, lana, adiskideak, oporrak eta abar dauden. Maitasuna elaborazio iraunkorra da, mentura saiatua, bizitzak planteatzen dituen oztopoak gainditzen dituena. Iraunkortasuna da maitasun-prozesuaren aspektu funtsezkoa. Maitasunak dedikazioa, entrega, pentsamendua, aktuazioa, eraldaketa exijitzen ditu.

Maitasun erromantikoa, gorago lehen lerroetan aipatua, elkar topatzean amaitzen da, hasierako estasian. Batean urtu eta heriotzara darama.

Pentsa dezagun Romeo eta Julieta-rengan, zeinek gurasoek adostutako ezkontza-legea hautsi eta euren bizitzekin ordaindu

baitzuten. Zigor sinbolikoa, antzerki-lana izateagatik, baita garai hartan indarrean zegoen araua hausteko tentazioa zeukatenentzat. Haien heriotzak angustiaren irteera bat adierazten digu: lehenago heriotza amore ematea baino, maitasuna traizionatzea baino.

Antzinako komediek kontatzen digute nola ausaz elkar topatzen duten bi gaztek gurasoek antolatutako intriga zapuztu behar duten. Antzerki-gatazka arruntena, gehien erabilia, ausazko maitasunaren borroka da beharrezko legearen kontra.

Behin araua hausteak dakarren angustia gaindituta, pertsona maiteminduak kuraiaz, adorez janzten dira, beren bizitzetan zoriona, maitasuna, justizia erdiesten joateko.

Horregatik diogu maitasuna ezin dela elkar topatzera mugatu. Maitasunak elaborazio iraunkorra da, mentura saiatua, bizitzak planteatzen dituen oztopoak gainditzen dituena. Iraupena da maitasun-prozesuaren aspektu funtsezkoa. Maitasuna, Badiouren arabera, banantzearen kontrako borroka arrakastatsua da.

Pentsalari horrek dioenez, badira bizitza osoan elkar maite duten pertsonak. Esan ohi dena eta imajinatzen ditugunak baino gehiago.

Maitasunak ez baditu lehen oztopoak gainditzen, lehen dibergentziak, lehen zailtasunak, simulakroa besterik ez da.

Gure gizartean, zein dira maitasun-gertakizuna mehatxatzen duten arau edo irizpideak? Funtsean, elkar topatzearen azarea erasotzen dutenak: zero arriskuko maitasuna. Erabakia hartu aurreko angustian zentratzen direnak: litekeena da sufrimendurik gabeko maitasuna. Eta, beraz, maitasunari garrantzia kentzen diotenak, hedonismo orokortuak gidaturik, non soilik gozamen sexuala gailentzen den.

Maitasunaren benetako etsaia egoismoa da, ez bestearena, norberarena baizik. Horregatik da funtsezkoa maitasunean bikotearen ibilbidea, eta ez hainbeste bikotea osatzen duten kideen asetasun pertsonala.

Pentsa dezagun oraindik gaur egun, hainbat gizartetan, maitasunezko ezkontzak galarazten dituzten arau guztietan, arrazakeria dela, erlijioa dela, gurasoek adostutako ezkontzak direla, etab., etab.

Aitzitik, maitasunak mugak, estatu sozialak, arrazak gainditzen jarraitzen du.

Azter dezagun orain, maitasun-gertakizunaren prozesu subjektiboa, gorago aipatutako maitasun-historiari jarraituz: Richard eta Mildred Loving, AEBak aldatu zituen maitasun-historia indartsua (2021).

Richard eta Mildred Loving haur zirela elkar ezagutu zuten, eta maitemindu egin ziren. Hots, Richard eta Mildred-en arteko elkar topatze azarotsuak maitasun-gertakizuna deitzen duguna eragin zuen. Hau da, elkar topatzeak interpelatu egiten ditu (subjektibitateari dei egiten dio) eta esku-hartzera gonbidatzen ditu, erabaki bat hartzera. Erabakia apustuan gauzatzen da, maitasun-deklarazioan (*maite zaitut*, edo antzeko zerbaitetan). Apustu egiten duten pertsonek inkesta kualitatiboa egiten dute apustua positiboa ala negatiboa izan den frogatzeko (pertsona interpelatua maitemindua dagoen ala ez).

Richard eta Mildred ezkondu zirenean, ez zuten nahi hori “deklarazio politikoa edo borroka bat abiatzea” izan zedin.

Maiteminduta zeuden, besterik ez. Apustua positiboa izan denez, Richard eta Mildred-ek erabakia gauzatzea erabakitzen dute: ezkontzea.

“Washington-era joan behar izan zuten ezkontzeko, Virginiako agintariek (non biak hazi, eta maitemindu eta ezkondu nahi zuten) debekatzen zietelako ezkontza. 1958a zen”. Aitzitik, erabakia hartu aurretik, elkar topatzeak interpelatutakoek, angustia sentitzen dute Araua-Legea-Superniarekiko beldurragatik. Kasu horretan, Virginian indarrean zeuden arauak, arrazen arteko ezkontzak debekatzen zutenak ziren Lege. Hala eta guztiz ere, ondoren ikusiko dugunez, adoretu, angustia gainditu, Washington-en ezkondu eta justizia lortzen dute.

Virginia-ra itzuli zirenean, ez zuten asmorik legeari erronka botatzeko, “zoriontsu ezkonduta” zeuden.

Baina dena aldatu zen egunsenti batean.

"Goizeko 2:00ak aldera zen. Argia ikusi (linternarena) eta esnatu nintzenean, polizia zegoen ohearen alde batean. Altxatzeko esan zigun”, kontatu zuen Mildred-ek.

Sheriff-ak, bi laguntzaileekin, galdetu zion Richard-i zein zen emakumea. “Nire emaztea”, esan zuen hark.

Ezkontzako ziurtagiria horman esekita zegoen arren, biak atxilotu zituzten, pertsona “desegokiarekin” ezkontzeko ‘krimenagatik’, esan zuen Mildred-ek.

Hauxe da gizartean eta AEBetako legeetan berebiziko inpaktua izan zuen maitasun-historia. BBC Mundo-k San Valentin egunean gogoratzen du.

Horregatik, beren logelan atxilotuak izan ondoren, 1959an, urte beteko kartzelaldira kondenatuak izan ziren.

Aldiz, epaile batek zigorra indargabetu zuen, **25 urtez** estatura elkarrekin edo aldi berean ez etortzeko baldintzarekin.

Loving bikoteak onartu beste aukerarik ez zuen izan eta estatu hartako Arraza Integritateko Akta bortxatzeagatik errudun deklaratu behar izan zuten.

Beren desterruko ebazpenean, epaileak ez zuen soilik tokiko legea aipatu, baizik hegoko hainbat herritarrek horixe zela uste zuten “Jainkoaren borondatea”.

"Jainko ahalguztidunak, arraza zuria, beltza, horia, malaysiarra eta gorria, eta kontinente ezberdinetan kokatu zituen. Konponketa honekiko interferentziarik ez baleude, ez legoke arrazoirik holako ezkontzetarako (arrazen artekoak). Arrazak banandu izanak adierazten du ez zeukala asmorik euren artean nahas zitezen”.

Bikotea Washington-era itzuli zen, han zoriontsu sentitzen ez zen arren, eta jaio zen tokira itzuli nahi zuen, beren familietatik gertu. Hara hemen Estatu-Superniaren zigorraren gauzatzea.

1963an, laguntza-bila, Mildred-ek erabaki zuen orduko fiskal orokor Robert Kennedy-ri idaztea, eta hark eskubide zibilak lantzen ibiltzen zen taldeetako bati bidali zion eskutitza.

Eskutitza esku onetara iritsi zen.

AEBetako Goi Auzitegiaren erabakian, Richard eta Mildred-i Virginia-n “senar eta emazte, aita eta ama” izateko eskubidea ematen zitzaien.

Baina 1967ko ekainaren 12an gertatutakoa historikoa izan zen Loving bikotearentzat ez ezik, herrialde osorako: Goi Gorteak Virginia-n eta beste hainbat estatutan indarrean zegoen arrazen arteko ezkontza-debekua kendu zuen.

Orduko Goi Azitegiko presidente Earl Warren-ek arrazen arteko ezkontzen debekua “herri libre batentzako jasanezintzat” jo zuen”.

Ikusi berri dugunez, gure protagonistek apustu eginez, erabakiak hartuz jarraitu zuten; ez angustiaren aurrean amore emanez superniarekiko beldurrez, adoretuz eta justiziaren bila. Azkenean lortu zuten, eurentzat eta AEBeko biztanle guztientzat.

Laburpena

Ikus ditzagun interpelazioaren terminoak aipatutako kasu bakoitzean.

Aurreko erreferentzietan ikusi dugunez, interpelazioa funtsezkoa da berria komunikagarri egiten den prozesuetan. Hots, gure kontzientziari, gure subjektibitateari deitzea, berria gaizki ikusi eta gaizki entzuna izatetik, ongi ikusi eta ongi entzuna izatera pasa dadin. Errefusatua izatetik onartua izatera. Interpelazioak infinituak dira, eta gertakizunaren izaerara atxikiak daude. Ikus ditzagun batzuk. Zientziaren kasuan, teoria

zientifikoak berak eta haien defentsak interpelatzen gaituzte, sinbolikoaren erregistroan zientifikoek berek burututa (Galileo, Darwin, Einstein, Cantor edo Warren-ek). Azken honek, ikusi dugunez, ultzera gastrikoa eragin behar izan zuen bere gorputzean, *helicobacter pylori*-a irentsiz, eta gero antibiotikoekin sendatu, bere aurkikuntzaren egia ukatzen zutenak konbentzitzeko.

Artearen kasuan, maisulanak (poesia, nobela, antzerkia, etab.) sinbolikoaren eta autoreen interbentzioen bitartez (baita erregistro honetan ere), zeinak gure subjektibitateari deika dauden, maisulan berriekiko gure errefusa onarpen bihur ditzagun.

Pintura edo eskulturaren kasuan, obrak berak (figuratiboak edo abstraktuak, imajinarioaren bitartez (formak eta koloreak) artisten adierazpenak (sinbolikoa), zeinak gure subjektibitateari deika dauden, oraindik arte ezagunean oinarrituta baikaude, arte berria ulertu eta onar dezagun, gorago ikusi dugun moduan.

Musikari dagokionez, dei klasikoa partiturak dira (musika-notak) eta konpositoreen beren interbentzioak (biak erregistro sinbolikoan) gure subjektibitateari dei egiten dietenak. Pop, rock, jazz, blues, eta abar-en kasuan, taldeak eta abeslariak dira beren musikarekin (musika-notak) eta beren adierazpenekin (hirurak erregistro sinbolikoan) interpelatzen gaituztenak.

Operari dagokionez, musika, kantu eta aktuazioaren (antzerkiaren) konbinazioa da historia bat kontatzeko, eta autoreek berek beren obrak defendatuz (laurak alor berean), gure sinbolikoa interpelatzen duena.

Politikari dagokionez, teoriak eta politikoen aktuazioak (beren bizitzak arriskuan jarriz) dira berria aldarrikatzen dutenak, sinbolikoaren erregistroan, ikusi berri dugunez.

Maitasunari dagokionez, elkar topatze azarotsuan sortzen dena, begirada batetik edo deklarazio batetik (erregistro sinboliko eta imajinarioak) bikotearen adorea, bere maitasuna ingurumen kontrakoan defendatuz, debekatu egiten baitu, interpelatzen

gaituena eta gure imajinario zein sinbolikoa aldarazten diguna. Aurreko adibideek hola adierazten dute.

Hortik bada postulatzen dugu, ezen asmakizun guztiak, kreazio guztiak (gertakizun guztiak, A. Badiou-k esango lukeen eran) klasiko bihurturik, lehen unean errefusatuak izan zirela. Pentsa dezagun aipatzen ari garen berebiziko magnitudea.

Hauek dira gertakizun-tipo ezberdinetatik jariatzen diren sentimendu-motak: gogobetetasuna, politikan; plazerra arte-lanetan; alaitasuna teoria zientifikoa ulertzen dugunean; eta zoriona maitasunean.

Baiezta dezakegu, ikuskera hau, giza sorkuntzen, gertakizunen interpretazio hau (prozesu subjektiboa, zeinaren bidez berria sistematikoki errefusatua eta geroago onartua izan ohi den), orain arte egin ez den zerbait dela.

Erreferentziak

6.1. Erreferentzia bibliografikoak

Aristóteles (1995). *Ética Nicomáquea. Ética Eudemia*. Gredos.

Badiou, Alain (1982). *Théorie du sujet.* Seuil.

Badiou, Alain (1992). *Conditions*. Seuil.

Badiou, Alain (1993). *L'éthique*. Hatier.

Badiou, Alain (2009). *Éloge de l'amour*. Flammarion.

Beckett, Samuel (1980). *Mal vu mal dit*. Minuit.

Hegel, George Wilhem F. (1974). *Ciencia de la Lógica.* Solar/Hachette.

Kandinsky, Vasili (1996). *De lo espiritual en el arte*. Paidós Ibérica.

Kandinsky, Vasili (2002). *Escritos sobre arte y artistas*. Síntesis.

Lacan, Jacques (1966). *Écrits*. Ed. du Seuil.

Mallarmé, Stéphane (1945). *Oeuvres complétes*. Gallimard.

Mandela, Nelson (1995). *El largo camino hacia la libertad*. Círculo de Lectores.

Pajares J. M. y Gisbert J. P. (2006). *Helicobacter pylori*: haren aurkikuntza eta garrantzia medikuntzan. Revista Española de Enfermedades Digestivas. 98. lib., 10. zbk.

Reboul, Olivier (1986). *La Rhétorique*. P.U.F.

6.2. Erreferentzia hemerografikoak

Richard eta Mildred Loving, AEBak aldatu zituen maitasun-historia indartsua, *BBC News Mundo*. 2021eko otsailaren 13a.

Etxebarria Gabilondo, Francisco (2003). Elkarrizketa. *Gara*, 2003ko urtarrilaren 5a, 17. or.